

## Des-kontrol taldea

Disko berria aurkeztu zuten Arrasaten

KULTURA, 22-23



## Aloñak eta UDAk etxean irabazi dute

Mondrak 0-0 berdindu du Real Unionen aurka

KIROLA, 14-15

## Xabier Euzkitze

'Kalaka' saio berria hasiko du etzi

KULTURA, 26



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko apirilaren 24a • 3. urtea • 98. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

## AHTren lanak hasteko akordioa sinatuko dute gaur

*Debagoieneko kaltetuek informazio falta salatzen segitzen dute* 2-3

**170 KM-KO SAREA**  
Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek izenpetuko dute hitzarmena gaur eguerdian Madrilen

**LEHEN DESJABETZEAK**  
Eskoriatzan, Aramaion eta Arrasaten otsailean egin zituen Madrilgo Sustapen Ministerioak lehenengo lur desjabetzeak

**LANAK BANATZEN**  
Eusko Jaurilaritzak Bergara-Behobia trazatua eraikiko du eta lanak Kupoaren formula bidez finantzatuko dira

**INFORMAZIO FALTA**  
Bergarako eta Antzuolako kaltetuek esan digutenez, ez dute oraindik Eusko Jaurilaritzarengandik inongo informaziorik jaso

## Abian errenta aitortpena egiteko epea

*Gaurtik ekainaren 27ra 10.000 bat aitortpen egingo dituzte Bergarako bulegoan* 4

## Eguenean iritsiko da Gaztetxe Martxa gurera

Bergaratik sartuko da gurera gaztetxe eta asanbladen aldeko jai ibiltaria. Bi geldialdi egingo ditu: Oñatin, 18:00ak aldera, eta handik Arrasatera joango dira afaltzera. 10

## MADRILGO ETA VALENTZIako BISITARIEN KOPURUA GORA

Gora egin du bisitarien kopuruak gurean; herri batzuetan nabarmen, gainera. Oñatin, esaterako, Aste Santuan bakarrik, iazko Aste Santu eta Pazko astean ia beste bisitari izan dituzte -849; 974ren aldean-. Ostatuai dagokienez nahiko beteta egon dira; ibarrean dauden 12 baserri turismo etxeak erabat bete dira, esaterako. Goiko argazkian atzo, domeka, Tarragonako 53 erretiratutako Oñatira egindako bisita. 8

## SUPER AMARAN autoa uztea ez zaizu ezer kostatuko

SANTALAITZ KALEA

50

P

SUPER AMARA

LEKU

P

AMILLAGA KALEA

SUPER AMARA

San Lorenzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara



# GEUREAN

- Aste Santuko oporraldian gora egin du bisitarien kopuruak gurean ere | 8
- Jonan Fernandez Elkarriko izendatu dute Arantzazuko Bake Zentroko zuzendari | 10



**Jose Mari Velez de Mendizabalekin Eusko Ikaskuntzaz aritu gara | 11**

## ABIADURA HANDIKO TRENA

170 KM-KO TRENBIDE SAREA EUSKADIN | ESTATUKO ETA EAE-KO ORDEZKARIEK MADRILEN IZENPETUKO DUTE EGUERDIKO 12ETAN

# Gaur sinatuko dute Madrilen AHTren obrak abiatzeko hitzarmena



## 'Euskal Y'-a

AHTren trenbide sarea 170 kilometrokoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoan eta hiru hiriburuak lotuko ditu 30 bat minutuko tartean. 230 kilometro orduko abiadura hartuko du (merkantzien kasuan 90 kilometro orduko) eta Udalatx azpian egingo dute bat trazatuaren hiru adarrek.

Proiektuak 4.178 milioi euroko aurrekontua du eta Eusko Jaurlaritzak Bergaratik Behobiarainoko trazatuaren eraikitze-lanak burutuko ditu. Lanok 1.642 milioi euroko aurrekontua dute euskal administrazioak Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren bidez berreskuratuko dituenak.

## Hitzarmenari buruzko hainbat datu

### • ZATI GARESTIENA

Eusko Jaurlaritzak Bergaratik Behobiarainoko zatiaren obrak hartuko ditu bere gain. *Euskal Y*-aren zatirik luzeena eta garestiena da. 90 km dira, trazatuaren %66 lur azpitik joango da. Aurrekontua 1.642 milioi euro da.

### • KUPOAREN FORMULA

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du hasiera batean lanon finantzazioa. Gero, Kontzertu Ekonomikoaren bidez Kupotik kenduko du aurrez hartutako diru kopurua. Formula berriak aurrekaria ezar dezake, esaterako, Pasaiaiko portuaren proiektuari begira.

### • ESTATUAREN ARDURAK

Espainiako Sustapen Ministerioak gainerako trenbide zatiak egingo ditu, Arrasate-Elorrio-Bergara tartea barne. Gainera, Eusko Jaurlaritzak eraikiko duen zatiko gainegitura (trenbidea, elektrifikazioa, seinaleztapen sistema...) hartuko du bere gain. Aurrekontua 2.536 milioi euro da.

### • JAURLARITZA USTIATZAILE

Bestalde, bi administrazioek adostutako hitzarmenaren arabera Eusko Jaurlaritzak kudeatuko du etorkizunean Abiadura Handiko Trenaren Euskadiko trazatuaren ustiapena. Hitzarmenarekin batera kudeaketa gomendioa ematea ere sinatuko da gaur Madrilen.

### • AKORDIO KONPLEXUA

Gaur sinatuko den akordioa iristea ez da lan erraza izan. Akordioaren konplexutasunak Madrilgo Ogasun zein Sustapen ministerioen eta Jaurlaritzako Ogasun zein Garraio departamentuen inplikazioa eskatu dute. Bi administrazioen arteko lau hilabeteko lanaren ondorioa da hitzarmena.

### • 2005EKO AKORDIOA

2005. urteko amaieran iragarri zuten bi administrazioek akordio batera iritsi zirela. Gaur Espainiako Sustapen Ministerioan akordio hori ofizialki berretsiko dute.

*Hitzarmenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Bergara-Behobia trazatua eraikiko du*

*Lehenengo aldiz Kupoaren formula erabiliko da Estatuari dagozkion eraikitze-lanak finantzatzeko*

Larraitx Zeberio

Gaur, astelehena, sinatuko dute Madrilen Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obrak egiteko eta finantzatzeko hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako administrazioek.

Hitzarmenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Bergara-Behobia zatiaren obrak bere gain hartuko ditu. Horren finantzazioa aurreratuko badu ere, gero Kupotik kenduko du aurrez hartutako diru kopurua, 1.642 milioi euro.

Bitartean, kaltetuek infor-mazioak eza salatzen jarraitzen dute eta euskal gizarteko hainbat eragilek eztabaida publikoa eta herri kontsulta ezinbestekoak direla errepikatzen dute behin eta berriz.

Eskaerok ez dute erantzunik jaso eta hasiak dira lehenengo desjabetzeak Debagoienean ere. Madrilgo Sustapen Ministerioak egin ditu lehenengoak Eskoriatza, Aramaio eta Arrasaten.

"Ez dakigu desjabetutako lur eremuak zehatz-mehatz zeintzuk diren", adierazi digu Eskoriatzako kaltetu Juan Carlos Belokik. "Desjabetutako lurak take-tez mugatzeko eskaera egin diegu behin eta berriz, baina garestiegia dela erantzun digute. Beldur gara lanak hasterakoa gehien komeni zaien lekutik pasako diren. Kalte-ordainak negoziatzeko orduan, bestalde, garrantzitsua da egurretarako prest dagoen pinudia hartzen dizuten ala belar soro aldatsa hartzen dizuten jakitea".

Lehenengo faseko desjabetzeak egin ditu Sustapen Ministerioak Eskoriatza, Aramaio eta Arrasaten. Laster iritsiko da bigarren fasean sartzen diren partzelen txanda. Lehenengo fasean trenbidearen plataformak hartzen dituen lursailak desjabetu dituzte. Orain hondakindegia, segurtasun bideak eta obrako

makinak mugitzeko beharrezkoak izango diren lursailak desjabetuko ditu Madrilgo Ministerioak.

"Ez dakigu hori zein egunetan gertatuko den", adierazi digu Juan Carlos Belokik. "Agian, egun berean egingo dituzte gure okupazio aktak zein bigarren faseko lurjabeen desjabetzeak".

### TRENBIDE SARE BAKARRA, BI ERAIKITZAILE EAE-N

Berez, Madrilgo Sustapen Ministerioari dagokio AHTren eraikitze lanak egitea. Gaur Madrilen sinatuko den hitzarmenaren ondorioz, ordea, Eusko Jaurlaritzak hartuko du Bergaratik Behobiarainoko trazatua eraikitze lanak.

Horren harira, bi izango dira *Euskal Y*-aren eraikitze lanetan jardungo duten administrazioak eta bi izango dira desjabetze prozesuak aurrera eramango dituzten administrazioak.

Hitzarmenari buruz jakin dugunaren arabera Madrilgo Sustapen Ministerioak Gasteiztik Bilborako trazatua eraikiko du, Arrasate-Elorrio-Bergara tartea barne. Eusko Jaurlaritzak, berriz, Bergaratik Behobiarainoko trenbidea egingo du, baita Donostia eta Iruerako lotuneak ere. "Gipuzkoarrak gara, baina

**Eskoriatza, Aramaio eta Arrasaten egin dituzte lehenengo desjabetzeak**

**Bergara eta Antzuolako kaltetuek ez dute oraindik planorik ikusi**



ABIADURA HANDIKO TRENA

Madrilek desjabetu gaitu", salazten dute Leintz bailarako kaltetuek. "Zergatik? Zein lege aplikatuko da gure kasuan? Zein administratziotara jo beharko dugu?"

Jose Carlos Belokik adibide bat jarri zigun: "Segurtasun neurriak tarteko debekatuta dago trenbideak gertu eraikitzea. Buruz ari naiz, baina uste dut Espainiako legediaren arabera errespetatu beharreko distantzia 70 metro dela. EAERen kasuan, berriz, distantzia hori 50 metro-ra murrizten da. Gu zein kasutan gaude?", galdetzen du Jose Carlos Belokik.

**KALTETUEN EGOERA EUSKO JAURLARITZAREN ZATIAN**

Eskoriatza, Aramaio eta Arrasateko kaltetuek informazio falta salatzen duten neurrian, Bergara eta Antzuolako kaltetuen egoera ez da hobea. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak egingo ditu zati honetan

trenbidearen eraikitze-lanak, baina lur-ugazaba hauek ez dute administrazioarekin inongo kontakturik eduki. Trenbide sare berriaren trazatua nondik doan ere ez dakite. "Duela bi urte etorri ziren zundaketak egitera eta marka batzuk egin zituzten. Hori da dakigun guztia", azaldu digu Angiozarren bizi den Agurtzane Diez de Usabiagak. "Langileek ere zer edo zer erakutsi ziguten, baina ezer gutxi. Gainera, esaten dute ordutik hona aldaketak egon direla; beraz, pentsa! Udaletxera joan nintzen duela pare bat aste dokumentazio berririk iritsi ote den galdetzeraz, eta ez dago ezer".

Kaltetu hauek biharko sinadura-ekitaldiaren ondotik zer gertatuko den zain daude. Pentsatzen dute orduan hasiko dela Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila gauzak mugitzen. Bitartean protokolo bat prestatzen ari dira desjabetze prozesuari nola aurre egin definitzeko.

**Garraio sailburuak sinatze ekitaldiaren ostean egingo dituen adierazpenen zain daude kaltetuak**

**AHT Gelditu! Elkarlanak gaurko mobilizaziorako deia egin du, 11etan, Ajuria Enean**

**Proiektuaren aurkako zenbait argudio**

**• EZTABAIDA PUBLIKOA ETA HERRI KONTSULTA**

AHT egitasmoari buruzko elkarrizketa ukatu egin dela salatzen dute Euskal Herriko hainbat alderdi politiko eta eragilek. Arazaori irtenbide demokratikoa emateko herri kontsulta exijitzen dute.

**• INGURUNE-INPAKTUA**

Proiektuak ingurumen ondorio latz eta atzera bueltarik gabeak ekarriko dituela salatzen dute. Gainera, AHTren energia

kontsumoa tren normal batena baino sei aldiz handiagoa izango ei da.

**• GEZURRA NAGUSI**

Informaziorik eza salatzeaz gain gezurretan ibiltzea leporatzen diete proiektuaren bultzatzaileei. Gezurra ei da trenak 230 kilometro orduko abiadura hartuko duenik. Aurrekontua ere esandakoa baino handiagoa ei da eta sinestezina ei da AHTk garraio arazoak esandako neurrian arinduko dituenik.

JUAN CARLOS BELOKI | ESKORIATZAKO KALTETUA

# "Seriotasun handiagoa merezi dugula uste dugu"

L.Z.

**Eskoriatzako kaltetuek informaziorik eza salatzen jarraitzen dute. Batzuk desjabetuak izan dira dagoeneko. Ez dakite zein lur zati kenduko dizkieten.**

**Zein da une honetan AHTren proiektuari buruz duzun informazioa?**


Birritan etorri dira Madrilgo teknikariak Eskoriatzara. Batzuk desjabetuak izan gara dagoeneko eta oraindik ez dakigu trena zehatz-mehatz nondik igaroko den. Terrenoetan mugarrak ipintzeko eskaera egin dugu behin eta berriz. Legez dagokigun eskubidea da. Egiten ez badute ezin dugu garbi ikusi desjabetzeak noraino afektatzen gaituen. Asko borrokatu ondoren satelite bidez egindako mapa ekarri ziguten otsailean, baina ez dakigu hor agertzen diren koordenadak (VE15 eta antzerakoak) gure terrenoetan kokatzen.

**Jarriko dituzte mugarri horiek?**

Ez. Topografoek egin behar dute lan hori eta garestiegi dela diote. Basoak eta zelaiak garbitzeko garaian egingo dute. Gure beldurra da momentua iritsita-koan gehien komeni zaien lekutik joango direla, ez dituztela hitzartutako neurriak errespetatuko. Bestalde, kalte-ordaina negoziatzeko garaian ere oso ezberdina da desjabetutako lur zatian pinudia harrapatu zaituen edo zelai aldatsua hartu.

**Informaziorik eza salatzen jarraitzen duzue.**

Dokumentazio gutxi ekarri digute eta akats handiak antzeman ditugu. Askotan mapak ez datoz bat. Bestalde, ez dugu oraindik behin betiko eraikitze-lanen proiektua ikusi. Pentsa, Araba-



L.Z.

**"Desjabetutako lurrak taketaz mugatzea da orain eskatzen duguna"**

**"Jaurlaritzak egingo ei du Gipuzkoako trazatua. Ez gara gipuzkoarrak, ala?"**

ko zati bat esleitu dute dagoeneko eta oraindik ez dute desjabetze prozesua hasi.

**Madrilek eraikiko du Eskoriatzako trazatua, ezta?**

Hori ere ez dugu ulertzen. Prentsan agertu da Eusko Jaurlaritzak eraikiko duela Gipuzkoako trazatua. Ez gara gipuzkoarrak, ala? Gure kasuan zein lege aplikatuko da sortuko diren ika-mikak argitzeko? Atxondoko Udalak, esaterako, Eusko Jaurlaritzara bideratu ditu alegazio guztiak. Orain, diote, Madril arduratuko dela zati horretaz...



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Erosten jakin



ERRENTA AITORPENA | EKAINAREN 27RA BITARTEAN 10.000 AITORPEN INGURU EGINGO DITUZTE BERGARAKO BULEGOAN

# Gaur hasiko da errenta aitorpena egiteko epea gure ibarrean ere

2005eko ekitaldiari dagozkion 10.000 bat aitorpen egingo dituzte Bergarako bulegoan

Monika Belastegi

Iritsi da errenta aitorpena egiteko garaia. Txikiago edo handiago, baina beti buruhauste. Gaurtik (apirilak 24) ekainaren 26ra arte, Ogasunarekin ditugun zorrak edota Foru Aldundiak gurekin dituenak kitatzeko garaia izango da Debagoieneko bizilaguneneko ere.

Ibarreko zergadun gehienek errenta mekanizatua egingo dute, eta, horretarako, Foru Ogasunak Bergaran duen bulegora joko dute. Bulegoko arduradun Miren Pozuetaren esanetan, 10.000 bat aitorpen egingo dituzte.

Dena den, horrek ez du esan nahi egingo dituzten guztiak Debagoieneko bizilagunenak direnik, ezta debagoiendar guztiek han egiten dutenik ere: Foru



Bergarako bulegoan 200 bat aitorpen egingo dituzte egunero ekainaren 26ra bitartean.

Ogasunak hamabi bulego ditu Gipuzkoan barrena eta 100 bat teknikarik jardungo dute bulegoetan.

**TXANDA HARTZEKO TELEFONOA ZABALIK**  
Errenta mekanizatua egiteko txanda hartzeko epea egubakoi-

tzean zabaldu zuten. Horretarako 902 10 00 40 zenbakira deitu behar da edo [www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta](http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta) webgunera jo.

Txanda hartzeko epea, berriz, ekainaren 17an bukatuko da. Edozelan ere, modu mekanizatua gain, badira aitorpena egiteko beste bide batzuk aukeratzen dituzten zergadunak ere, besteak beste, aurrezki kutxak eta gestoriak.

2005eko ekitaldiak 352.000 laguni eragingo die. Horietatik hiru laurdenek itzultzeko aitorpenak izango dituzte (batez beste 1.008 euro) eta gainerakoek ordaintzekoak (batez beste 1.521 euro).

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Foru Ogasunetik azaldutakoaren arabera, derrigortuta daude errenta aitorpena egitera urteko lan etekin gordina 18.800 eurotik gorakoa dutenak eta baita ere kapital onuragatik 1.600 eurotik gorako sarrera dutenak.

Horrekin batera, 8.500 eta 18.800 euro bitarteko lan irabazi gordinak dituztenen artean badira errenta aitorpena egitera derrigortuta daudenak. Hain justu, lan edo administrazio kontratu edo harreman bat baino gehiago izenpetu dutenak eta kontratuaren epea amaituta, enplegu emaile berarendako lan egiten jarraitu dutenak.

## Bergarako bulegoan 10.000 bat aitorpen

Miren Pozueta bulegoko arduradunaren esanetan, Bergarako bulegoan 10.000 bat aitorpen mekanizatu bideratuko dituzte. Iaz, 9.389 egin zituzten eta 9.601 pertsonari egin zieten arreta. Gipuzkoako 12 bulegoan kontuan hartuta Ogasunak aurreikusitako 107.000 bat errenta mekanizatu bideratuko dituztela.

Iazko kanpainan, bulegoetan bideratutako aitorpenen %84,98 hogeitun baina gutxiagoan egin zituzten.

MIREN POZUETA | BERGARAKO BULEGOKO ARDURADUNA

## "Errenta mekanizatuekin hasi ginenetik asko aldatu da gurekiko iritzia"

Monika Belastegi

**Bergarako Foru Ogasunaren bulegoko arduradun berria da Miren Pozueta. Aurten go ekitaldiaz eta Bergarako bulegoaz jardun dugu harekin.**

**Berrikuntza azpimarragarririk ez du aurtengo kanpainak.**

Ez. Ñabardura txikiren bat edo beste badu, baina ez oso eraginkorrak. Esanenezake 2004ko

ekitaldikoarekin alderatuz ez dagoela aldaketarik.

**Autolikidazioak ere gora egin du aurtun.**

Bai, iaz igoera nabarmena izan zuen eta aurtun berriz igo da bidalitako autolikidazio proposamenen kopurua. Ogasunak zergadunen informazio gero eta gehiago du eta horrek ahalbidetzen du gero eta autolikidazio gehiago egiteko aukera. Iaz, esaterako, 118.433 autolikidazio proposamen bidali genituen eta


92.367 onartu ziren. Aurtun, berriz, 143.058 bidali ditugu, aurreko urtearekin alderatuz %20,8ko igoera egon da. Aurtun bidalitakoetatik zergadunen aldekoak dira 108.885 eta 34.173 kontrakoak.

**Aurreko ekitaldiarekin batera inkesta egin zenuten zergadunen asebetetzea ezagutzeko asmoz.**

Bai. Bergarako bulegoak 10 puntutik 7,7 atera zituen eta Gipuzkoako hamabi bulegoen batez bestekoa 7,91 puntu izan zen.



Errenta mekanizatuekin hasi ginenetik asko aldatu da gurekiko iritzia, arreta pertsonalizatua izatera jendea lasaiago etortzen da.



Hirusta  
Satetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**Hemen**  
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxaurtxueta 16 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58

**TOKI  
ALAI  
TABERNA**

**Karajilloetan  
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

## LAN ESKAINTZA

Etxetresna elektrikoak  
saltzen dituen denda batek,  
**ENTREGATZE  
LANAK EGITEKO**  
mutil gaztea behar du.

Interesatuok deitu honako telefonora:  
**943 77 00 34**





# *Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatuz**.s.l.

Zubillaga auzoa 1  
**OÑATI**

Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



Eusko Ikaskuntzako Batzorde Eragileak Aretxabaletako udaletxean egin zuen egubakoitz goizean hileroko bilera. Egun berean, lankidetzaren hitzarmen bana sinatu

zituen erakundeak Antzuola zein Aretxabaletako udalekin. Urtero ikerketa beka bana deituko dituzte udalotan Eusko Ikaskuntzaren babesarekin. Hala, bost

dira Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatuta duten Debagoieneko udalak. Aurretik sinatua dute Arrasate, Eskoriatza, Oñati zein Bergarako.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL | EUSKO IKASKUNTZAKO GERENTEA ETA EUSKALTZAINA

## “Momentu honetan euskal kulturaren inguruan Interneten dagoen eskaintza handiena gurea da”

Larraitz Zeberio

**Lankidetzaren hitzarmen bana sinatu berri duzue Antzuola eta Aretxabaletako udalekin. Zer dakar horrek?**

Eusko Ikaskuntzak bokazio iraunkorra duen lankidetzaren hitzarmena adostu du Antzuola zein Aretxabaletako udalekin. Urtero ikerketa beka bana deitzeko konpromisoa hartu dugu bi erakundeek.

**Asko dira horrelako hitzarmenak sinatu dituzten herriak?**

Antzuola eta Aretxabaletarekin 72 herri dira. Herri asko dira baina nahi genituzkeenak baino gutxiago. Eusko Ikaskuntza ez da enpresa bat eta behar den moduan gauzak egin ahal izateko gure jarduna beste modu batean estrukturatu beharko genuke. Giza egitura oso txikia dugu. Ezin gaitezke langile aldetik asko haztera konprometitu eta askotan zaila zaigu herri guztietara heltzea.

**Herri handietan errazago egiten duzue lan?**

Inondik ere. Nik nahiago ditut ertain mailako udalak, askoz ere eraginkorragoak dira. Zantza berran lan egitea zaila da, baina Bilbon lan egitea ere bai. Hiri honetan 14 urte daramagu lanean, baina zaila da, oso handia delako eta bere beharrez guztiak ondo identifikatuta dituelako.

**Gipuzkoan 30 bat udalekin duzue sinatua lankidetzaren hitzarmena. Zergatik nagusitasun hori?**

Bistakoa da Eusko Ikaskuntzaren irudia Gipuzkoan saltzea Nafarroan saltzea baino errazagoa dela. Baina esango nuke psikologia eta soziologia aldetik

gure lurraldeak oso ezberdinak direla. Esango nuke Gipuzkoan gehiago erabiltzen dela lankidetzaren formula. Bizkaian beste era batera egiten dute lan. Nork bere medioekin bultzatzen ditu proiektuak. Sistematizazioa ezberdina da.

**Pentsatzen dut Ipar Euskal Herria beste mundu bat izango dela...**

Bai. Irekiagoak dira eta beti daude prest hitzarmenak sinatzeko, baina gero ez daukate sosisik. Ipar Euskal Herrian hori da arazo nagusia. Hala eta guztiz ere, 12 bat udalekin sinatu ditugu lankidetzaren hitzarmenak, tartean Donibane Lohizune, Miarritze, Maule, Barkoxe, Hendaia...

**Hileroko bilera Aretxabaletan egin duzue oraingoan. Zer eztabaidatzen duzue batzar horietan?**

Kudeaketa plana berrikusten dugu, egoera ekonomikoa azter-

tu, proiektu ezberdinen jarraitzea egiten dugu... Hil honetan, esaterako, Renoko unibertsitatearekin dugun konbenioarekin gabiltza. Eranskina egin diogu eta azken ukituak ematen ari gara.

**Zeintzuk dira Eusko Ikaskuntzaren lehentasuneko proiektuak?**

Mila ditugu. Momentu honetan garapen iraunkorraren inguruan metodologia bat sortu dugu eta 220 bat pertsona inguru ari dira 2020. urteko eszena zein izan daitekeen aztertzen.

Eusko Sarea proiektua ere oso garrantzitsua da. Bulegoa zabaldu genuen duela hiru urte Buenos Aires hirian eta bost pertsona ari dira handik munduko euskaldunen sarea irradiatzen.

Azkenik hitzarmenak ditugu sinatuta munduko zazpi unibertsitatearekin, tartean EHU, Oxford, Ginebra, Reno eta Argentinako beste bi zentro.

**Eta zer da Euskal Entziklopedia?**

Beste proiektu handi bat. Momentu honetan euskal kulturaren inguruan Interneten dagoen eskaintzarik handiena gure eskaintzen dugu. Hiru webgune ditugu: elkartearena, *EuskoNews* astekariarena eta Euskomedia Fundazioak kudeatzen duen Eusko Ikaskuntzaren dokumentu fondoarena. *EuskoNews* astekaria da eta astero 80.000 irakurle ezberdin ditu. Dokumentu fondoaren entziklopedia erraldoia bihurtu da. Ikerketak, txostenak... jartzen ditugu bertan eta eguneratze prozesu jarraitua eskatzen du.

**Zein finantzazio iturri dituzue?**

Gezurra dirudien arren gure diru-iturri nagusia Espainiako Hezkuntza Ministerioa da. Iker-

**“Euskal Herriko 72 udalek sinatu dute lankidetzaren hitzarmena Eusko Ikaskuntzarekin”**

**“EuskoNews' gure astekari digitala da eta astean batez beste 80.000 irakurle ezberdin ditu”**



Jose Mari Velez de Mendizabal Aretxabaletako udaletxean.

keta zentroa kontsideratzen gaituzte eta gertutik jarraitzen dituzte gure proiektuak. Gero, hiru aldundiek ere euren babes eskaintzen digute, baita Eusko Jaurlaritzak ere. Urtean 5 bat milioi euroko aurrekontua du Eusko Ikaskuntzak.

**Asko dira Eusko Ikaskuntzarekin Lankidetzaren hitzarmena sinatuta duten Debagoieneko udalak?**

Arrasate izan zen lehenengo konbenioa sinatzen. 1994. urtean izan zen. Ondotik Eskoriatza, Oñati eta Bergarako udalak gehitu ziren.

### Antzuola eta Aretxabaletako udalek lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Eusko Ikaskuntzarekin

Egubakoitzean kultura eta zientzietarako lankidetzaren hitzarmen bana sinatu zituzten Eusko Ikaskuntzarekin Antzuola eta Aretxabaletako udalek.

Goizeko 9etan egin zen sinadura ekitaldia Antzuolako udaletxean eta eguerdiko 13etan, berriz, Aretxabaletako herriko etxean. Tartean hileroko bilera egin zuen Aretxabaletako udaletxean Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Eragileak.

“Udalok eta Eusko Ikaskuntzak lan marko berri bat ezartzea adostu dugu”, adierazi zuen sinadura ekitaldian Eusko Ikaskuntzako gerente Josemari Velez de Mendizabalek. “Beka deialdi bana egingo da

urtean behin eta ikerketa gaia udal bakoitzarekin adostuko dugu”.

Lehenengo urte honetan Antzuolan alardearen inguruko ikerketa bultzatzea adostu da. Aretxabaletan, berriz, II. Errepublika garaiko urteak ikertuko dira, baita Espainiako gerra eta Frankismoko lehenengo urteak ere.

Antzuola zein Aretxabaletan Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako lehendakariorde Teresa del Vallekin sinatu zuen lankidetzaren hitzarmena bi herrietako alkateekin batera. “Gure helburua oroitzapen historikoak ez galtzea da”, esan zuen del Vallekin. Argazkian, Aretxabaletako alkate Arritxu Olidenekin batera.







# hamaika esperientzia, proiektu bat

- elkarlana
- lankidetzeta
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzailea
- berritzailea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna



**GOIESKOLA**

Matrikulazio epea:  
Apirilaren 24tik  
maiatzaren 5era

#### ARRASATE INSTITUTUA

Sta Teresa 25  
Tel.: 943794447  
943798300

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.
- Heziketa Zikloetarako Batxilergoa.

**Batzar informatiboa:**  
apirilaren 27an, 18:00etan

#### IPINTZA INSTITUTUA (BERGARA)

Boni Laskurain 19  
Tel.: 943763142

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

**Batzar informatiboa:**  
apirilaren 27an, 18:30ean.

#### OÑATIKO BH INSTITUTUA

Larraña auzoa z/g  
Tel.: 943782150

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.
- Prestakuntza Batxilergoa GMHZetara bideratuta.

#### Heziketa Zikloak:

- Makinen eta linea eroanbideen mantendu elektromekanikoa.
- Natur Ingurunean Kirol Ekintzen Gidaritza.
- Mekanizazioa.

#### Ikastaroak:

- CNC Tornua (50 ordu)
- Plano irakurketa (50 ordu)
- Eguzki energia fotovoltaikoa (40 ordu)

goieskola@euskalnet.net

605 773992

www.goieskola.net

# Dirua kolokuan

## ETA IBILI MUNDUAN

APIRILAREN 18TIK 29RA



# OPARI EGITEN DIZKIZUGU 6.000 €\*

6 ORDUTAN GASTA DITZAZUN, ETA  
ZURETZAKO ZUZENEKO 14.000 SARI  
BAINO GEHIAGO. ZATOZ NODAL PLAZARA.

\*Boulevardeko dirutan

 **EROSKI**

 **LEROY MERLIN**

 **SKECHERS**  
Footwear *Talkak*

  
**el Boulevard**  
de Vitoria-Gasteiz





JOSETXO ARANTZABAL

568 lagunek egin dute bisita gidatua Oñatin. Atzo, Tarragonako 53 laguneko taldea izan zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Arantzazuko kultura eta natura ondarea ezagutzera bisitari ugari hurbiltzen da.

ASTE SANTUA | POZIK DAUDELA AURRERATU DUTEN ARREN, ASTEON EGINGO DUTE BALORAZIOA IBARREKO TURISMO BULEGOEK

# Bisitari kopuruak gora egin du aurten, herri batzuetan nabarmen

*Aste Santuko egunetan etorri da bisitari gehien; baserri turismo etxeak erabat beteta egon dira*

Monika Belastegi

Pozik agertu dira Oñatiko Turismo Bulegoko arduradunak Aste Santuan jaso duten bisitari kopuruaz jardutean: "Oso balorazio positiboa egiten dugu", aurreratu dute. Eta ez da gutxiagorako; Eguen Santutik astelehenera bitartean 849 laguni egin zieten arreta bulegoan; iaz, Aste Santua eta Pazko Astea, biak kontuan

izanda egindako kontsulta kopuruaren oso antzekoa, hain justu (974 bisitari izan ziren).

Etorri direnen jatorriaz berba egiterakoan, Euskal Herritik eta Kataluniatik etorritakoak izan dira gehien nabarmendu direnak, ohi bezala. Hala eta guztiz ere, madrildarren kopuruak ere nabarmen egin du gora Oñatiko bulegoko arduradunen esanetan. Bestalde, Murtzia, Valentzia eta Bada-

joztik ere bisitari nahiko etorri dira eta hori oso ohikoa ez dela azaldu dute: "Leku horietako bisitariak erakartzea gehiago kostatu izan zaigu, baina aurten azpimarratzekoa da nahikotxo etorri direla". Arrazoietakoa bat da, arduradunen ustez, ETaren sueten iraunkorraren iragarpena.

**Iazko Aste Santu eta Pazko asteen beste lagun izan da Oñatin Aste Santuan**

Bergarako Turismo Bulegoko arduradunen esanetan, han ere igo egin da Madrilgo bisitarien kopurua, "kataluniarren pare jartzearino". Valentziarren kopuruak izandako igoera ere nabarmendu egin dute. Gatzagan 205 lagunek ikusi dute Gatz Museoa, "iaz baino askoz gehiagok", arduradunen esane-

**Madrilgo eta Valentziako bisitari kopuruaren igoera nabarmendu dute**

tan. Ohi bezala, gehienak kataluniarrek eta madrildarrak.

**OSTATUAK IA BETETA**

Oñatiko Turismo Bulegoko arduradunen esanetan, ibarreko ostatuak nahiko beteta egon dira. Ibarrean dauden baserri turismoko 12 etxeen kasuan, "Aste Santuan guztiz beteta" egon direla aurreratu dute, "hilabete lehenagotik", hain justu. Gainerako ostatuen kasuan, "erabat bete ez diren arren jende nahiko" ibili dela gehitu dute bulegoko arduradunek.

Pazko Astea bukatuta, datu guztiak batu eta asteen egingo dute balorazioa ibarreko bulegoek.

## • KULTURA ETA NATURA ONDAREAK ERAKARRITA ETORTZEN DA GURERA BISITARI ASKO



INMACULADA ETA PACO | CASTELLO

**"Iaz etorri ginen lehenengoz, eta, kultura eta natura ondareak erakarrita, errepikatu egin dugu"**

Iaz izan ziren lehenengoz Euskal Herrian Castelloko Unibertsitateko bi irakasleok, eta aurten errepikatu egin nahi izan dute, batik bat kultura eta natura ondareak erakarrita. Arantzazun izan ginen eurekin, atzo goizean: "Izugarri ederra iruditu zaigu", esan ziguten. Aurreko egunetan "Nafarroan izan gara eta baita Bilbon ere. Orain, Gasteizera goaz, baina ez genuen Arantzazu ikusi gabe joan nahi. Batik bat Oteizaren lana eta ingurua ikustera etorri gara", gehitu zuten, eta basilikak txundituta utzi zituzten: "Dorrea zoragarria da".



TERESA, MARIA CINTA, JOSEFINA, TERESA ETA PEPITA | TARRAGONA

**"Guztia oso garbi eta txukun dago eta euskaldunok oso adeitsuak zarete"**

Lehenengoz etorri dira Euskal Herrira. Zestoako hotel batean daude eta handik eguneko irteerak egin dituzte: Donostian, Gasteizen, Irunen, Hondarribian, Zarautzen... izan dira, eta atzo goizean Arantzazun eta Oñatin izan ziren. "Harritu gaituen gauza bat izan da guztia dagoela oso garbi, txakurren kaka gutxi ikusi dugu kalean, gurean ez bezala", aitortu zuten. Euskaldunok oso adeitsuak garela ere gehitu zuten eta txakolina asko gustatu zaiela. Bestalde, Josefina gehitu zuen senarra eta bera animatu direla etortzera ETaren su-etenarengatik: "Orain arte senarrak ez du etorri nahi izan".



ITZIAR UGARTE

*optika*

# ORDAINKETA ERRAZAK

**6 hilabetetan  
ordaintzeko aukera.**

(N.A.N. eta zure kontu-korrante edo txartel zenbakiarekin bakarrik)

**INTERESIK GABE**  
Galde iezaiguzu!!

0%



# Arantzazuko Bake Zentroa "irekia, laikoa eta akonfesionala" izango da

*Jonan Fernandez Elkarriko koordinatzaile ohia izendatu dute zuzendari. Udarako zehaztuko dute, seguruenik, zentroaren proiektua*

Monika Belastegi

Jonan Fernandez, Elkarriko koordinatzaile ohia, Arantzazuko Bake Zentroaren zuzendari izango da maiatzetik aurrera. Halaxe eman du aditzera Arantzazuko Bake Zentroaren Fundazioak prentsa ohar batean. Han azaltzen duenez, Fernandez hautatzeko fundazioak erabili dituen irizpideak izan dira: "Istiluen konponbideari eta bakerako jarduerari dagozkienetan zabala izatea, alderdiekiko loturarik ez izatea eta etika ikuspegiarekiko konpromisoa onartzea; izan ere, horretan oinarritu nahi da Bakerako Zentroaren proiektua".

Fernandezek egin beharko duen lehenengo lana ere zehaztu dute: Bakerako Zentroa martxan jartzeko plana zehaztea, hain justu; betiere, Iñaki Beristainek koordinatu duen lantaldeak prestatutako oinarrien arabera. Bestalde, datozen hilabeteetan fundazioak eta zuzendari berriak zerrendak osatu beharko dituzte proiektuaren organo nagusiak osatzeko, hau da, Zuzendaritza batzordea eta Aholkularitza batzordea.

Zentroaren helburu nagusia da "istiluak etikoki lantzen ikasteko bideak sustatzea", eta hel-



JOSETXO ARANTZABAL

Gandiaga Topagunean jarriko dute Bake Zentroa. Dagoeneko hasi dituzte egokitze lanak.

buru hori, alde batetik, "euskal gizartearen barrura zuzenduta egongo da, istilu desegileei aurrea hartu eta aurre egiten saiatzeko"; eta, era berean, kanpora ere egongo da zuzenduta "ardura eta laguntasuna eskainiz ahaztutako istiluei eta istiluetako ahaztuei".

## ZENTRO LAIKO ETA AKONFESIONALA

Frantziskotarren ekimena izan arren, Bake Zentroa irekia izango da, laikoa, akonfesionala eta autonomoa, eta jarduerak-guneak izango dira: familia, ikaskuntza, unibertsitatea, enpresa, giza istilu berriak, barruko arazo politiko-

ak eta kanpoko borrokak. Bestetik, hainbat ekintza egingo dituzte: ikasketa eta ikerketak garatuko dituzte, hitzaldiak, ikastaroak, kongresuak, aholkularitza zerbitzua ere eskainiko dute eta bertako zein nazioarteko bake ekimenak bultzatuko dituzte.

Bakerako Zentroa Gandiaga Topagunean egongo da. Dagoeneko ari dira egokitze lanak egin eta uztaile bukaerarako amaituta egongo direla aurreratu dute. Horrekin batera, Bake Zentroaren proiektua ere udararako zehaztuta egotea nahi dute frantziskotarrek. Hala, urri hasieran inauguratuko dute zentro berria.

**Fernandezek egingo duen lehenengo lana da zentroa martxan jartzeko plana zehaztea**

**Zentroaren helburu nagusia da "istiluak etikoki lantzen ikasteko bideak sustatzea"**

## Eguenean sartuko da Gaztetxe Martxa Debagoienera

*Ekitaldiak Oñatin eta Arrasaten egingo dituzte, hurrenez hurren*

Jon Berezibar

Eguenean iritsiko dira Gaztetxe Martxakoak ibarrera. Maulen barikuan hasi eta Euskal Herri osora zabalduko da gaztetxe eta asanbladen aldeko jai ibiltaria. Eta maiatzaren 7an Iruñean amaituko da. Oñati izango da Gaztetxe Martxaren lehen geltokia gurean, 18:00ak aldera. Eguenean izango da, eta jai giroan baina aldarrikapen garbiarekin igaroko dira ibarretik. Irundik Elizondora joango dira gaur, eta, astean zehar Gipuzkoa zeharkatuta, Bergaran sartu eta lehen geldialdia Oñatin egingo dute. Han manifestazio koloretsuarekin herritik igaro eta Arrasatera joango dira kalejira eta afaria egitera.

## JAIRA BATZEKO DEIA

Antolatzaileek jai giroan martxara batzeko deia egiten die herritarrei. Oñatin manifestazioa egin eta Arrasaten jarraituko du ospakizunak kalejira eta musikarekin. Mezu baikor eta alai helarazi gura dute martxan eta horretarako herria girotzeko makina bat ekintza antolatu dute. Eguen arratsaldean sartuko da martxa ibarrean, Soralezetik, eta Arrasate igaro eta gero, Bizkai aldera egingo dute, Elorrio aldera joanda.

### • ALTAMIRA AUZOKO JAIK ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

### AUZOKO ZORTZI ERRETIRATU OMENDU ZITUZTEN, OHI BEZALA

Askotariko ekitaldiak izan dituzte ume zein nagusiendako. Hain justu, auzoko erretiratuei egin dieten omenaldia izan da ekitaldi hunkigarrietako bat: Kristina Azurmendik, Asun Zoritak, Nikolasa Madinabeitiak, Isidra de la Callek, Julian Posadasek, Adoracion Roderok, Candelo Hernandezek eta Virgio Monterok lore sorta ederra jaso zuten. Bestalde, auzotarrek lerrook aprobetxatu nahi izan dituzte Joaquina Leibarrri 30 urtean auzoaren alde egindako lana eta erakutsitako ardura guztia eskertzeko.

### • MAHAI-FUTBOL TXAPELKETA BERGARAN



JOSETXO ARANTZABAL

### PARISERA JOANGO DA JESUS GARTZIA, BARIKUAN IRABAZI ETA GERO

Euskal Herriko Mahai Futbol Federazioak antolatuta, mahai-futbol txapelketa jokatu zuten egubakoitzean Bergarako kiroldegiko tabernan. 24 lagunek hartu zuten parte txapelketan. Sei lagunetako lau taldetan banatuta egin zuten hasierako ligaxka eta modu horretan eta hamar golera jokatuta erabaki zituzten lehenengo kanporaketarako zortzi jokalariek. Finalera Iñaki Jaso bergarra eta Jesus Gartzia gasteiztarra iritsi ziren eta azken horrek eroan zuen bi lagunendako Parisera bidaia, 18-17 geratu eta gero.



## Albiste izango da

ANTZUOLA | FILMAK GAZTELEKUAN IZANGO DIRA

### Liburuak eta filmak droga kontsumoaren prebentziorako

Udaleko Ongizate Zerbitzuak drogamendekotasuna saihesteko kanpaina jarri du abian: batetik, 8 eta 12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoendako informazio liburuak banatuko dituzte; liburuok drogari aurre egiteko hamar urrats jasotzen ditu; bestetik, 13 eta 18 urte bitarteko gazteak dituzten gurasoendako gida bat banatuko dute.

Horrekin batera, gai beraren gaineko filmak ere emango dituzte gaztelekuan: 16 urtetik gorakoendako hilaren 28an, 21:30ean, eta 12 eta 15 urte artekoendako hilaren 29an, 17:00etan.

ARETXABALETA | ORDUTEGI ZABALAGOA IZANGO DU

### Gaur itzuliko da Gernika plazara azoka, ia zazpi urteren ondoren

Astelehen goizetan Belorrieta auzoan egiten den azoka lekuz aldatuko du Udalak: gaurtik aurrera, Gernika plazan egingo dute eta han aurkituko ditugu ohiko postuak. Zazpi urte inguru egin ditu azokak Belorrieta auzoan, Errekabarren eta Loramendi kaleak elkartzen dituen errepidean, hain justu. Orain, baina, aldatzea erabaki du Udalak, errepide hori ixteak eragiten dituen zirkulazio arazoak gero eta handiagoak direlako. Bestalde, ordutegi zabalagoa ere izango du azokak: 09.00etatik 14.00etara, hain zuzen.

Hori guztia kontuan izanda, Udalak jakinarazten die herritarrei libre laga beharko dutela Gernika plaza ondoko aparkaleku txikia.

BERGARA | EMAKUMEZKOENDAKO IKASTAROA DA

### Elkar komunikatzen ikasteko ikastaroa antolatu du Udalak

Elkar komunikatzeko, entzuteko eta asertibitate teknikak ikasteko tailerra antolatu du Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak. Emakumeei zuzenduta dago eta arazoak konpontzeko, hobeto adierazteko, gure emozioak maneiatzen ikasteko... baliabideak eskainiko dituzte. Hala, auto-estima hobetzeko eta harreman osasuntsuagoak izateko aukera dago.

Ikastaroa maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 2an amaituko da eta eskolak eguazten eta egubakoitzetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara, kultura etxean. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 943 77 91 25 telefono zenbakira edo jo Udaleko Gizarte Ongizateko departamendura. Ikastaroa doan da eta plazak mugatuak dira.

OÑATI | HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DUTE

### Pake Lekuko nagusiek udaberriari ongiatorria egingo diote asteen

Pake Lekuko nagusiek udaberria iritsi dela ospatuko dute asteen. Horretarako ekintza egitarau zabal antolatu dute gaur hasi eta eguenera bitartean. Gaur, astelehena, bisita gidatua egingo dute parrokiara; bihar, martitzena, *El Diario de Noa* filma ikusteko aukera izango dute, 17:00etan. Eguaztenean, bingo berezia jokatuko dute eta irabazleendako opari ugari egongo dira. Ekitaldi sortari bukaera emateko, egoitzako Aloña abesbatzak emanaldia egingo du 17:30ean. Horrekin batera, aste osoan barrena Jose Urtzelai *Milikua*-ren egur tailak egongo dira ikusgai.

BERGARA | MAIATZAREN 9RA ARTE

### Pazkoetan txosna jartzeko baimena eskatzeko epea zabalik dago

Pazkoetan txosna jartzeko baimena eskatzeko epea zabalik du Udalak. Irabazi asmorik gabeko herriko edozein taldek eska dezake baimena. Maiatzaren 9an bukatuko da epea eta eskaria udaletxean egin behar da.

Horrez gain, Pazkoetako egitaraua gorpuzten doa, dagoeneko. Erabakita dago zein taldek joko duten Bideberriko txosna-gunean. Horrekin batera, Koadrilen eguna ere astelehenean izango dela aurreratu dute eta besteak beste, bazkaria eta jolasak egongo direla. Horrekin batera, jaietako kartel lehiaketa ere deitu dute. Lanak aurkezteko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik.

## Hitzorduek



### MUNDUMIRA JAIALDIARI BEGIRA LEHIAKETAK DEITU DITUZTE | Izena emateko epea Oñatiko gaztelekuan zabalik, apirilaren 28ra arte

Mundumira jaialdia Oñatin ospatuko da aurtten, maiatzaren 26tik 28ra bitartean. Debagoieneko Mankomunitateak eta Euskal Herria aldiakariak antolatzen duten festaren bigarren ekitaldia izango da. Antolatzaileek graffiti lehiaketa eta marrazki eta pintura lehiaketa deitu dituzte. Bigarren honetan

bi maila bereiztu dituzte: 6-9 urte eta 10-12 urte bitartekoena. Graffiti lehiaketan 15 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, banaka zein multzoka. Edozein modutan, lehiaketotan parte hartzeko Oñatiko gaztelekuan eman behar da izena. [www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com)

#### ARRASATE |

##### • Hiru haundixek, hiru egunetan

AED elkartearen eskutik, apirilaren 29tik maiatzaren 1era. Izena emateko epea apirilaren 25era arte dago zabalik. Plaza mugatuak. Argibideak AEDk Pablo Uranga 4an duen bulegoan edo 943 71 21 17 telefono zenbakian.

##### • San Juanetarako kartel lehiaketa

Udalak deitutako lehiaketa. 2006 San Juan Jaiak Arrasate testua eraman beharko dute lanek. Egileak kontuan izan behar du aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dela. Jai egitarauaren neurria: 28 x 21 cm-koa izango da. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 19ra arte dago zabalik.

#### BERGARA |

##### • Gaztetxoekin olinpiadak

Gaztetxoekin arteko olinpiadetan izena eman dezakete LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleek ikastetxeetan edo Jardunen maiatzaren 5era arte.

##### • Mendi irteera

Gorla Alpinok eta Pol-Polek Urbionera eta Demandara joateko irteera iragarri dute apirilaren 29tik maiatzaren 1era. Prezioa, 115 euro. Izenematea Pol-Poleko bulegoan.

##### • 1943ko kintoen bazkaria

1943ko kintoek bazkaria egingo dute apirilaren 29an, Erreki jatetxean. Txartelak San Pedro kaleko Azkarate estankotan jaso daitezke.

##### • 1965ean jaietakoaren afaria

Txarrantxa jatetxean, maiatzaren 6an. Izenematea: Pol-Pol, Ariznoa edo Etxagi.

##### • Pazkoetarako kartel lehiaketa

Udalak deitu du lehiaketa eta lanak aurkezteko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik. Pentekoste Jaiak 2006 Bergara testua eraman beharko dute kartelek. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu.

#### ELGETA |

##### • Pintxo eta kazuelatxoekin ikastaroa maiatzean

Ikastaroa antolatu du Udalak maiatzaren 3tik 29rako. Izenematea udaletxean egin behar da.

#### ESKORIATZA |

##### • Jardunaldiak HUHEZIn

Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza izenburupean, jardunaldiak izango dira HUHEZIn, apirilaren 27an eta 28an. Sarre- ra doanekoa den arren, derri- gorrezkoa da izena ematea: [sarrera@huhezi.edu](mailto:sarrera@huhezi.edu)

##### • Sagardotegira irteera

Aitzorrotz kultura elkarteak sagardotegi batera joateko irte-

era iragarri du apirilaren 29rako. Izenematea Inkernu tabernan egin daiteke.

##### • Udaleku irekietan begirale izateko izenematea

Udaleku irekiak antolatu ditu udalak uztailaren 4tik 21erako. Begirale izan gura dutenek Gazteria Zerbitzuan edo ludotekan aurkeztu behar dute curriculum apirilaren 27a baino lehen.

##### • Aldaiperen batzarra

Aldaiepe ehiza eta arrantza elkarteak urteko batzarra egingo du zapatuan, hilaren 29an. Lehen deialdia 16:30ean eta bigarrena 17:00etan.

#### OÑATI |

##### • 76ko kintoek 50. urteurrena ospatzeko afaria

76ko kintoek, 56an jaietakoekin, afaria egingo dute ekainaren 3an, aurtten betetzen dituzten 50 urteak merezi duen bezala ospatzeko. Aldez aurretik izena eman behar da Umerez tabernan, 20 euro jarrita.

##### • Arrasate-Oñati probarako laguntzaile bila

Laixan elkarteak maiatzaren 6an jokatuko den Arrasate-Oñati korrika proban lan egiteko jendea behar du. Bidegurutze eta bihurtze bidea adierazten eta zirkulazioa zaintzen laguntzeko gertu dagoen jendea behar dute. Argibideak 943 71 63 11 telefonon.



# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Liburuaren Eguna ospatzen

Txaloea bidali digu irakurle batek. "Liburuaren Eguna ospatu dugu domekan eta txalotu egin nahi ditut ibarreko herrietan antolatutako hainbat ekimen. Elgeta eta Bergaran herriko plazara atera zituzten liburuak. Arrasateko liburutegiak oparitu egingo ditu asteon hainbat liburu eta Aramaion liburu azoka antolatzen ari dira herritarrek emandako liburuekin. Horrelako ekimenak gehiagotan antolatu beharko genituzke".

### • Bankuen egoera tamalgarria Bergarako Errotalden

Irakurle batek ondorengo txistua bidali digu Bergarako Errotalde jauregi inguruko bankuen egoeraz. "Ez naiz Bergarako liburutegira sarritan joaten, baina egunotan joatea egokitu zait eta zur eta lur gelditu naiz inguruko parkean dauden bankuen egoera tamalgarria ikusita. Errotalde jauregi inguruan ez dago eseri eta patxadaz irakurtzeko aukerarik ematen duen banku bakar bat ere. Denak daude puskatuta, gehienak ustelduta. Ez dakit noren ardura den, baina pena da bergararrek hain leku polit eta lasaiaz disfrutatzeke aukerarik ez izatea".

### • Emaginik ez Bergarako anbulatorioan

Haserre agertu zaigu ondorengo irakurlea Bergarako anbulatorioan asteak egon direlako emaginaren kontsultak bertan behera. "Iruditzen zait aurreikuspen gutxi dagoela anbulatorio horretan. Emaginak baja hartu badu ordezkioa jarri behar da lehenbailehen, eta asteak eman ditugu zerbitzu hori gabe Bergaran. Haurdun gaudenok zein umea izan berri dugunok emaginaren kontsultak beharrezkoak ditugu. Lagun bat Oñatira bidali zuten azkenean, eta 'Orain arte non egon zara?' galdetu zioten, proba bat egiteko epe zegoelako".

## Sarean harrapatuta

### Zer egiten duzu udaberriko alergiei aurre egiteko?

Adituek diote aurtengo udaberriaren aurreko urteetan baino arazo gehiago izango dituztela polenari eta udaberriaren agertzen diren beste substantziei alergia dietenek. Pilulak hartzen dituzte batzuek alergiari aurre

egiteko; beste batzuek nahiko dute mendira joan gabe geldituta. Zer egiten duzu zuk? Eragiten dizute udaberriko alergiek? Galdera horiek egin dituzte *Goiena.net*-en. Hemen bildu ditugu erantzun batzuk.

### MEDIKUAK EMANDAKO PILULAK HARTU BEHAR

Nire urteroko arazoa da. Udaberria iristen denean beti izaten dut alergia. Begiak negarrez, mukiak eta doministikuak. Gainera mendira joatea gustatzen zait, baina ezin mukizapirik gabe atera etxetik! Nik sendagileak errezetatutako pilulak hartzen ditut. Bestela akabo!

Polen / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### EDOZEIN MOMENTUTAN SOR DAITEKE

Zorionez nik ez daukat inolako alergiarik. Hala ere, esan didate bat batean agertzen direla alergia asko. 28 edota 35 urterekin ere askok izaten dute alergiaren bat lehenengo aldiz. Beraz, edonork edozein momentutan izan dezake alergia.

Miren / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### MENDIRA JOATEARI EZIN UTZI HORREGATIK

Ni alergiagatik behintzat ez naiz etxean geratuko. Astebururo egiten dut bueltatxo bat menditik eta orain, eguraldi onarekin, sarritan joango naiz. Alergia ere badiot polenari baina hori ez da eragozpena. Alergia dugunok berdin-berdin joan gaitzke mendira. Nik txertoa hartzen dut udaberri hasieran eta ondoren pastilla batzuk. Egundak onak eta

### UDABERRIAN EURIA EGINGO BALU HOBE

Neuk, fisikoki behera egiten dut. Bai, bai, begiak, doministikuak... horiek denak bai, baina amorru handiena ematen dit defentsa barik gertatzen naizela, eta berehala katarroa, ohetik ezin jaiki, zeharo motelduta... Bitaminak hartzen ibili behar. Zukuak barra-barra, ura edan asko, eguzkitako beturreko barik inora ere ez...

Oraintxe ordainduko nuke udaberriaren euria egitea. Orain, eguraldi ona egiten badu, eta haizea... sartu mahai azpian! Datorren hiletik aurrera joango nintzateke itsaso zabalera. Ez, ez ez, graminearik ez!

Alergicstar / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

txarrak ere izaten ditut alergiaren kontua dela eta, baina mendira joan gabe ez naiz geratuko!  
Mendizale / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### GEROZ ETA DEFENTSA GUTXIAGO DITUGU

Urtero esaten dute, "udaberriko txarrena da aurtengoa alergia daukateneandako". Urtero ber-

din. Nik uste urte denak izaten direla antzerakoak; kontua da neguan ez gabela akordatzeko alergiarekin eta lasai egoten gabela, udaberria iritsi arte.

Zenbat alergia mota dauden ikertzen ibili beharrean, hobe genuke alergia horiek zerk sortzen dituzten ikertzen ibiltzea. Zergatik dago gaur egun hainbeste alergia? Kutsadura, hartzen ditugun elikagaiak, xaboiak... denak dauka garrantzia. Geroz eta defentsa gutxiago daukagu eta horrek alergiak sortarazten ditu.

Joxan / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### BASERRIAN EZIN IZATEN DUT LAGUNDU

Neuk ez dut doministiku askorik egiten, baina defentsekin oso baxu egoten naiz eta buruko minak edukitzen ditut. Horregatik ezin izaten naiz mendira joan eta ezin izaten diot aitari baserrian lagundu. Gainera, aitak ez nau ulertzen eta haserretu egiten da berak halakorik ez duelako. Nik ere orain dela zapi bat urte arte ez nuen, baina halako batean agertu zitzaidan.

Urtero esaten dute urte txarra dela eta graminea gehiago dagoela. Nik dagoeneko igartzen dut, baina txarrena San Isidro ostean izaten da.

Baserritarra / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Aurrerantzean isunak jasoko dituzte bideak oker gurutzatzen dituzten oinezkoek. Zer deritzozu?



**IBON SEGURA** |  
ESKORIATZAKO UDALTZAINA

Ez dut uste neurri txarra denik. Gainera, jakina da zigorra ekonomikoa denean arreta handiagoa jartzen diegula gauzei. Eskoriatza, baina, herri txikia da eta oinezkoendako pasabide gutxi ditugu hemen. Zenbait lekutan, bat ere ez. Nire ustez, herri handietan hobeto aplikatuko da neurria.



**PEGERTO BLANCO** |  
TAXILARIA BERGARAN

Oso ondo iruditzen zait oinezkoek ere isunak jartzea. Gidariok badugu erantzukizunik, baina oinezkoek ere bai. Zer egin dezakegu oinezko batek semaforoa gorri dagoenean gurutzatzen duenean edo errepidea behar ez den lekuan zeharkatzen badu? Bizitza jartzen dute jokoan.



**IBAN PEÑAKOBA** |  
PEÑAKOBA AUTOESKOLA

Oinezkoendako pasabideak ez ditugu askorik errespetatzen, ez auto-gidariak ez oinezkoek ere. Badu zentzua isunak jartzea, baina ez da soluzioa. Beste neurri batzuk ere hartu beharko genituzke; esaterako, pasabideak ondo kokatzea, seinaleak egoki jartzea, jendea sentibilizatzea...



**JOSEBA UGALDE** |  
OINEZKOA

Denok errespetatu behar ditugula zirkulazio-arauak, oinezkoek zein auto-gidariak. Nire ustez, oinezkoek gehiago errespetatzen ditugu. Eta ez zait normala iruditzen bide guztiak autoendako egokituak egotea. Oinezkoek buelta handiak eman behar izaten ditugu pasabideak aurkitzeko.



## Egunkarietako harribitxiak

### MEREZITAKO OMENALDIA

Eguaztenean 25 urte beteko dira, Gijonen, Jesus Zamorak azkeneko minutuan sartutako golak lehenengo liga irabazteko aukera eman zionetik Realari. Gipuzkoa zein Euskal Herriarendako izugarritzko poza izan zen hura. Orduko taldea omenduko du Realak eguaztenean, Atano III.a frontoian.

'Gara'  
2006-04-23




### EZJAKINTASUNA, GEZURRAK ETA AHANZURA

Txernobilgo zentral nuklearra Ukrainan dago, Kiev hiriburutik 120 kilometro iparralderago. Bielorrusia eta Errusia ditu mugakide. Duela 20 urte, hiru herrialde horiek Sobiet Batasunaren mende zeuden eta orain dela 20 urte, 1986ko apirilaren 26an, gertatu zen historiako istripu nuklearrik handiena. Txernobilgo zentral nuklearrean, laugarren

erreaktoreko hozte sisteman, akats katea izan zen eta leherketa izugarria eragin zuen. Greenpeacen arabera, azken hamabost urteetan 200.000 pertsona hil dira Bielorrusian, Errusian eta Ukrainan erradiazioaren ondorioz. Bestalde, dio datozen urteetan 270.000 lagunek minbizia izango dutela eta horietatik 93.000 hil egingo direla.

'Berria'  
2006-04-23



## Tira, tira...



Ripa 'Deia' | 2006-IV-23

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Mundo'

SU-ETENA EGIAZTATU EGIN BEHAR DA

Barañaingo burdindegia kontrako erasoak agerian lagatzen du edozelango negoziazio politikori ekin aurretik beharrezkoa dela egiaztatzea -orain arte baino modu askoz zorrotzagoan- talde terroristak eta haren jarraitzaileek bakea nahi dutela eta prest daudela demokraziaren arauak onartzeko.

Editoriala  
2006-04-23

### 'Noticias de Gipuzkoa'

LUZEA, ZAILA ETA BIHURRIA

Nori egiten dio enbarazu su-etenak? Elkarrizketa kontrolatzen ez dutenei bai, aukera izan zutenean albo batera laga zuten arren, agian, armen isilunearen aurretik jarri zituztelako bestelako ardura batzuk.(...) Baina prozesua Barañaingo gertakariarekin ere bateraezina da. Bi aldeetatik joko garbirik ez bada- go labirintoan sartzeko arriskua dago.

Editoriala  
2006-04-23

### 'El Diario Vasco'

GAITZESPENA FALTA DA

Azkenean UPNko zinegotziaren negoziatio erre izana kale borrokari egotzi ahal bazaio, bateraezina da su-eten iraunkorrek egiaztapenaren ikuspuntutik. Horrela ez bada, egonezina eta adore falta bakarrik ezabatuko dira Batasunak gertakaria gaitzesten baldin badu edo ETak berak egiten baldin badu.

Editoriala  
2006-04-23

### 'Gara'

LUZEA, ZAILA, BAINA HELBURU ARGIA

Gatazka konpontzeko mahai irekia osatzea beharrezkoa da, baina PSOEek denbora kontrolatu nahi du eta eztabaida hori atzeratu. Dio orain garrantzitsua dela su-eten egiaztatzea. Alderdiko kide batzuek ere esan dute dagoeneko politikaren ordua iritsiko dela ETaren su-etenaren *iraunkorretik behin betikora* pasatzen denean.

Editoriala  
2006-04-23

## Zorroztalea



## Narrutsik

*Mila eta berrehun lagunek hartu dute parte Spencer Tunick argazkilariak Donostian antolatu duen instalazioan; New Yorkeko artistak bost argazki atera ditu "jardunaldi arrakastatsu" batean (...) Parte-hartzaileak prest. Spencer Tunickek ere espero baino lan beteagoa egin du.*

'Berria' | 2006-04-23

Elena Laka

Ez egidazue esan herri hau ezusteko galanta ez denik. Pentsatu hirurehun morroi elkartuko direla zapatu bateko goizeko zortzietan, bilutsik, artalde moduan gobernatuak izateko, eta hara! mila eta berrehun lagun arte-lan batean azala airean agertzeko gertu. Topikoak eraisten? Ez al ginen euskaldunok tradizioz itxiak eta lotsatiak?

Zapatuan niregandik gertu kafea hartzen ziharduen atso taldeak ez zion ondo irizten Tunicken instalazioari. Gizonik egon ez balitz, ba tira, behar bada bai, zioten. Baina emakumeak eta gizonak, guztiak bilutsik, eta umeak! denak nahastuta, onartezina.

Ordea, andreok, herri honetan gizonak eta emakumeak bizi gara, fifty-fifty gutxi gorabehera. Eta gauzak guztien artekoak izan

beharko dute, diot nik, zeren jakina da gero eta gaizkiago ikusita daudela sexu bateko pertsonen bakarrik parte hartzen duten ekimenak. Gogoan izan Gaztelubideko danborrada, Berdinatasunaren Legea.

Tira, ala agian ez, ikus Ahotsak ekimena. Guztiak emakumeak, guztiak ados, biluztasun puntutxo batekin, bai. Lan handiz, asmo ezin hobez. Baina andreok, hemen ere gogoratu herri honetan fifty-fifty bizi garela, eta ados ipini beharrekoetan gizonen (ere) hartu behar dutela parte. Batez ere, huskeria bat, zartagina kirtenetik daukatelako. Bestela, putza.

Beraz, Tunicken instalazioaren ondorengo aroko lelo berria, biluztu, nahastu eta artzainari kasu, arte lanaren hobe beharrez. Eta topikoak suntsitzen dihardugun honetan, hurrengo instalazioa, Debagoienean.

**"Jakina da gero eta gaizkiago ikusita daudela sexu bateko pertsonen bakarrik parte hartzen duten ekimenak"**

**"Tira, ala agian ez, ikus Ahotsak ekimena. Guztiak emakumeak, guztiak ados, biluztasun puntutxo batekin, bai"**



# KIROLA

- Saskibaloian, Mugarri Alkesak bigarren postua lortu du 90-71 irabazita | 18
- Eskubaloian, Ford Mugarri lider berria da Urdanetak galdu ondoren | 16



Zigor Urain  
Kataluniako  
mendiko bizikletako  
irabazlearekin egon  
gara hizketan | 21

PREFERENTE MAILA

UDA

## 2-0

ANAITASUNA

**UDA** | Eriz, Santxez, Erostarbe, Iturbe, Unamuno, Arenatza, Orueta (Nuñez, 83. min.), Arrieta (Gartzia, 69. min.), Arriaga (Kotxo, 72. min.), Igartua eta Rodriguez (Espinosa, 67. min.).

**Anaitasuna** | Aranbarri, Juaristi, Balentziaga, Larrar, Alkorta, Artetxe, Ibarbia (Korta, 51. min.), Sudupe (Gonzalez, 81. min.), Exposito, Sudupe eta Bastida.

**Golak:** 1-0 Arriaga (49. min.), 2-0 Kotxo (90. min.).

**Epailera** | Ayesa jauna. Ez zuen arazorik izan bere lana egiteko.

**Bestelakoak** | Eguraldiak lagunduta zale asko hurbildu zen Ibarbara. Azkoitiko jarraitzaileak ere izan ziren.

### Bikain

#### UDAREN GOLAK

Arriagak eta Kotxok sartutako golak izan ziren domekako partiduko protagonistak. Batez ere Arriagak boleaz lortutakoa. 49. minutua zen.

### Kaskar

#### Lehenengo zatia

Idea garbirik gabe atera ziren zelaira bi taldeak. UDARI kostatzen zitzaien partiduari neurria hartzea. Anaitasunak, bestalde, baloiaren jabetza izan arren, ez zuen joko ikusgarriarik egin.

### Esandakoak

"Erritmorik gabeko partidua jokatu dugu, batez ere lehenengo zatian. Bero handia egin du; badirudi atsedanak ez digula onik egin".

"Gaizki jokatu eta irabaztea lortuz gero, ondo. Baina garaipenek joko onaren ondorio izan behar dute. Emaitzarekin gustura gaude".

JON UNAMUNO |  
UDA-KO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Iker Oruetak barneratze onak egin zituen eskuin hegaletik.

FUTBOLA | PARTIDU ASPERGARRIA IBARRAN

## Golak izan ziren partiduko gauzarik aipagarriena

*Gol aukera garbirik gabe, UDA gauza izan zen Anaitasuna taldeari irabazteko. Arriagak lehenengo gola unerik egokienean lortu zuen*

Mireia Bikuña

Partidu aspergarria jokatu zuten domekan Ibarra futbol zelaian UDAk eta Anaitasunak. Gol aukera garbirik gabe, etxeko taldeak aprobetxatu zituen hobeto bere aukerak.

#### JOKO ESKASA

Partiduko minuturik gehienetan, baina batez ere lehenengo zatian, joko txarra egin zuten bi taldeek. Zelai erdiko jokoa izan zen nagusi hasierako minutue-

tan, eta aukerak sortzeko arazoak izan zituzten bi taldeek.

Azkoitiko taldea hobeto kokatu zen zelaian eta areara iristeko erraztasun handiagoa erakutsi zuen. 9. minutuan epaileak baliorik gabe utzi zuen Anaitasunak egindako gola, jokalaria joko kanpo egoteagatik.

Lehenengo zatian zaleek penaltia eskatu zuten UDA taldearen alde, Rodriguez arean erori ondoren. Eta atsedanaren aurretik izan zuen UDAk lehen zatiko aukerarik garbiena: fal-

ta erdiraketa batean Anaitasunako atezainak huts egin zuen, baina Arriagaren burukada kanpora joan zen. Hori horrela, atsedanean ez zen golik Ibarra futbol zelaian.

**Arriagak egin zuen lehenengo gola 2. zatiko lehenengo minutuan**

**Partidua amaitzear zegoela Kotxok borobildu zuen markagailua UDarentzat**

#### HASI ETA BEREHALA, GOLA

Bigarren zatiko lehen minutuan egin zuen UDAk lehenengo gola. Arriagak boleaz jaurti zuen areaz kanpotik. Markagailuan alde hartu ondoren, etxeko taldea lasaitu egin zen eta baloiaren jabetza hartu zuen. Bigarren aukera bat ere izan zuen Arriagak gola egiteko, hura ere boleaz egindako jaurtiketa batean.

Anaitasunak ere izan zituen bere aukerak: bi minutuan bi gol aukera, baina bietan huts egin zuen Bastidak.

Partiduko azkeneko minutuetan Anaitasunak lerroak aurreratu zituen berdinketaren bila, baina UDA izan zen bigarren gola egin zuena: Kotxok bikain amaitu zuen UDAk ezkerretik egindako jokaldia. Ordurako 90. minutua zen.



PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Zubiak (14 zenbakiduna) egin zuen partiduko bigarren gola.

# Liga irabazteko pauso handia eman du Aloñak

**ALOÑA MENDI**  
**3-0**  
**ZARAUTZ**

**Aloña Mendi** | Idigoras II, Olalde, Astola, Barrera, Elgarresta, Idigoras I (Moiua, 65. min.), Igartua, Zubia (Losada, 87. min.), Arregi I (Henry, 74. min.), Arregi II (Aramendi, 78. min.) eta Lopez.

**Zarautz** | Ibai, Igor (Xegu, 83. min.), Errasti, Mikel, Larra, Inasio (Azpi, 53. min.), Txema (Aritz, 81. min.), Jabi (Unax, 61. min.), Aitzol, Josu eta Joseba.

**Golak:** 1-0 Iñigo Arregi (31. min.) 2-0 Iñigo Zubia (50. min.), 3-0 eta Unai Moia, (penaltiz, 93. min.).

**Epaillea:** Tornos jauna. Ez zuen aparteko arazorik izan. Lan ona egin zuen.

**Arantzazu Ezkibel**

Aloñak pauso handia eman zuen atzo liga eskuratzeko. Zarautzi irabaziz eta Real Unioneke Mondraren kontra berdindu eta gero, Aloñak bost puntuko aldea du.

Partidua polita izan zen. Aloñak joko ona egin zuen, batez ere lehenengo zatian. Oñatiarrek aukera ugari egin zituzten zarautzarren aurka. 20. minutuan egin zuen Aloñak estreinako gola. Roberto Idigorasek eskumako hegaletik erdiratu eta Iñigo Arregik baloia sareetan sartu zuen.

Aloñako mutilak ez ziren lasaitu markagailua alde izan arren. Aurrera atera ziren bigarrenaren bila. Baina aukera onak sortu zituzten arren, ez zen golik izan.

Bigarren zatian partidua berdinduagoa izan zen. Bi taldeak lasaiago zelairatu ziren eta ez zen baloiaren jabe garbirik egon.

**POZA AZKOAGAINEN**

Xabier Elgarrestak atzetik hasitako jokaldi batean etorri zen bigarren gola. Xabik ezkerrera ireki zuen baloia, Robertok baloia jaso eta jaurti egin zuen, baina lehenengoan atezainak eta bigarrenean zutoinak baloia geratu zuten. Azkenean, Iñigo Zubiak alderatzea jaso eta baloia jaurti zuen, gola eginda.

Gainera, Iban Astolak zelai erditik jaurti eta ia gola egin zuen. Sareetan sartuz gero, partiduko gola izango zen. Azkeneko gola penaltiz egin zuen Unai Moiak.

# Gol aukerak izan arren, berdinketa besterik ez

**REAL UNION**  
**0-0**  
**MONDRA**

**Mireia Bikuña**

Partidu interesgarria jokatu zuten zapatuan Real Unioneke eta Mondrak. Bi taldeek joko oso ona egin zuten 90 minutuetan. Eta puntu banaketa izan arren, par-

tidua irabazteko aukerak izan zituzten bi taldeek.

**PARTIDUA IRABAZTEKO AUKERAK**

Mondrak lehen zatian aukera gehiago izan arren, etxeko taldeak izan zuen baloiaren jabetza. Bigarren zatian, aldiz, norgehiagoka asko berdindu zen. Joko polita egin zuten bi taldeek.

Azkenik, esan, Mondrak sailkapenean gora egin duela atzoko puntuarekin eta Ordiziaren aurka atzeratuta zuen norgehiagokako puntuak irabazita.

**Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila**

EMAITZAK	Puntuak	SAILKAPENA					
		J	I	G	B	GA	GK
Real Union-Mondra	0-0						
Allerru-Berio	0-2						
Zestoa-Irun 1902	3-1						
UDA-Anaitasuna	2-0						
Touring-Hondarribia	3-2						
Pasaia-Trintxerpe	0-2						
Orioko-Hernani	0-1						
Aloña Mendi-Zarautz	3-0						
Idiazabal-Ordizia	4-1						
Beti Gazte-Mutriku	1-0						
HURRENGOAK							
Berio-Mondra							
Irun 1902-Allerru							
Anaitasuna-Zestoa							
Hondarribia-UDA							
Trintxerpe-Touring							
Hernani-Pasaia							
Zarautz-Orioko							
Ordizia-Aloña Mendi							
Mutriku-Idiazabal							
Beti Gazte-Real Union							

**Gipuzkoako ohorezko gazte maila**

# Lehia gogorra izan zuten Bergarak eta Zarautzek

**BERGARA**  
**3-1**  
**ZARAUTZ**

**Arantzazu Ezkibel**

Norgehiagoka gogorra jokatu zuten zapatuan Ipintzan Bergarako gazteek eta Zarautz liderrak. Eta emaitzak bestelakoa erakusten badu ere, partidua nahiko berdindua izan zen.

5. minutuan, area kanpoko falta baten ondorioz, Ander Amasorrainek lehenengo gola egin zuen, Bergara markagailuan aurreratuta.

Emaitza kontra izanda, Zarautzek aurrera egin zuen, berdinketaren golaren bila. Hala, 20. minutuan, ezker hegaletik egindako erdiraketa batean Zarautzek gola egin zuen.

Atsedena gainean zutela, baina, Zarautzko atezainak Martini arean eginiko falta adierazi zuen epaileak. Atezainari txartel gorria erakutsi eta Martinek, penaltiz, bigarren gola egin zuen.

Atsedendialdiaren ostean, Zarautz gogotsu atera zen zelaira. Partidua berdintzeko aukera asko sortu zituzten, baina ezin izan zuten talde mahoneroaren atea zulatu. Azkenean, Xabi Linazisorok Bergararen hirugarren eta azken gola egin zuen.

**1. ERREGIONALAK ATSEDENA**

Aste Santuko oporren ondoren, datorren astean jokatu du Bergarak Sto. Tomas Lizeoaren aurka etxean. Hiru partidua falta zaizkio talde mahoneroari liga amaitzeko. Josu Zubiaren mutilak 3. postuan daude 58 punturekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Martinek, penaltiz, Bergararen bigarren gola egin zuen.



• LEHENENGO TERRITORIALA, IGOERA TXAPELKETA

# Ford Mugarri lider da, Urdanetak galdu ondoren

*La Salleren kontrako partidua erekin amaitu da igoera faseko lehen itzulia*

FORD MUGARRI  
**34-31**  
LA SALLE

**Ford Mugarri** | Egaña, Valle, J. Eskibel (4), A. Eskibel (2), E. Gartzia, Urrutia, A. Gartzia, Mtez. de Mendibil (1), Murillo, Lonbide (4), Calleja (4), Altzelai (2), Isasmendi (5), Otegi (10) eta Carrasco (2).

**La Salle** | Castelo, Escribano, Pernia (1), Solana (2), Ramos (6), Fernandez (2), Larrea, Martinez (4), Renteria, Aluso (6), Vicente (5), Santos (4) eta Barbero (1).

**Golak:** atsedenean, 16-13.



JOSETXO ARANTZABAL

Kepa Isasmendik lan ona egin zuen, batez ere lehenengo zatian.

Mireia Bikuña

Ford Mugarri igoera faseko sailkapeneko liderra da, zapatuan La Salle taldeari irabazi eta Urdanetak Gasteizko El Pilarren kontra galdu ondoren. Lehenengo itzulia bukatuta, Ford Mugarrik zortzi puntu ditu sailkapenean eta Donibanek eta Urdanetak sei puntu.

Hala, datorren asteburuan Andoni Arandoren taldeak Urdanetaren aurka Iturripen jokatu duen norgehiagoka oso garrantzitsua izango da. Izan ere, sailkapeneko lehen bi taldeak igoko dira mailaz.

**GOL ASKO**  
Zapatuko partiduan gol asko ikusi ziren; erasoko lana defen-

tsakoa baino askoz sendoagoa izan zen seinale.

Ford Mugarri kosta egin zitzaion La Salle taldeko pibota ongi defendatzea. Gainera, ezkerreko hegaletik gol asko jaso zituen etxeko atezainak. Erasosan, aldiz, joko ona egin zuen Arandoren taldeak. Hala, Ford Mugarri hiru goleko aldearekin iritsi zen atsedendira. (16-13).

**IKER OTEGI, PROTAGONISTA**

Bigarren zatiaren hasierako minutuetan Iker Otegi sartu-tako golei esker –sei egin zituen jokalaria bizkaitarrak–, aldea handitzea lortu zuen Arrasateko taldeak (21-16).

Hala, La Salle aldea murrizteko zelai erdian presioa egiten hasi zen, eta azkeneko minutuetan joko asko nahastu zen.

• LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA TXAPELKETA

# Allerru aurkari txikia izan zen

ARRIKRUTZ  
**29-19**  
ALLERRU

**Arrikruz** | Hernandez (2), Arregi, Bernal (7), Zulueta (9), Gartzia (8), Berrocal (2), Astigarraga, Ugarte eta Gartzia.

**Allerru** | Bergara, Cintero (3), Perez (1), Barbado, Tejero, Tejada, Simon (4), Vazquez, Frias (6), R. Sanchez, J. Sanchez (5), Villasante.

**Golak:** atsedenean 17-11.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak ez zuen arazorik izan sailkapenean azkena den Allerru mendean hartzeko. Inigo Aranbururen taldeak Kopako lehenengo garaipena eskuratu zuen zapatuan etxekoan aurrean.

**JOKALARI GUTXIREKIN**

Etxeko taldea bederatzi jokalarirekin bakarrik aurkeztu zen partidura, azken orduko lesioak direla-eta. Erritmoa hartzea kosta egin zitzaion arren, arazo barik aurreratu ziren markagailuan. Atsedenean 17-11 ziren aurretik.



JOSETXO ARANTZABAL

Jose Gartzia partidu ona jokatu zuen, zortzi gol eginda.

Aipatzekoa da Rafa Zulueta, Jose Gartzia eta Andoni Bernalek eginiko lana; 9, 8 eta 7 gol egin zituzten, hurrenez hurren.

Datorren astean atsedena izango dute Kopako taldeek eta bi aste barru derbia izango da Bergara eta Aloñaren artean.

• KOPA TXAPELKETA

## Bergarak gero eta gertuago du Kopa txapelketa

A.G.

Bergara kopa txapelketa bikaina ari da egiten. Zapatua Elgoibarri 18-35 irabazi zioten Josetxoren mutilek.

Partidua samur irabazi zuten bergararrek. Hasieratik aurreratu ziren markagailuan mahoneroak. Defentsan egindako lan onaren ondorioz, gol gutxi jaso zituzten. Erasoa, berriz, gogor aritu ziren. “Gure helburua ahalik eta gol gehien sartzea zen. Itzuli bateko ligaxka denez, gol aldeak garrantzi handia du”, adierazi digu Josetxok.

Orain, sailkapeneko bigarren postuan daude bergararrak Urolarekin berdindurik.

• KOPA TXAPELKETA

## Bigarren zatian galdu zuen Arrasatek

Mireia Bikuña

Bi zati ezberdineko partidua jokatu zuten domekan Iturripen Arrasatek eta BKL-CAK taldeek. Lehenengoan maila ona erakutsi zuen etxeko taldeak. Gazte mailako bi jokalarirekin aritu arren, aurretik iritsi ziren markagailuan atsedenera (13-8).

**PARTZIALA: 0-7**

Bigarren zatian, aldiz, arrasatearrek erasoan bi pibote jarri zituzten, eta aldaketak ez zien emaitzarik eman. BKL-CAK taldeak 0-7ko partzialarekin bere alde jarri zuen lehia (13-15). Etxeko taldea urduri jarri zen eta ez zen gai izan garaipena lortzeko (24-26).

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

**IGOERA TXAPELKETA. MUTILAK**  
Ford Mugarri Arrasate-La Salle 34-31

**KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA**  
Arrikruz Oñatiko Kobak-Allerru 29-19  
ANTT-Solfian-Bergara 18-35  
Arrasate Eskubaloit-BKL CAF 24-26

**GAZTE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA**  
Aloña Mendi-Bergara 22-30  
Urola-Gatz Museoa Jakion 25-31

**GAZTE NESKAK. KOPA TXAPELKETA**  
Pulpo-Verkol Aloña 15-31

**KADETE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA**  
Elgoibar-Gatz Museoa Jakion 22-18  
Bidaso-Aloña Mendi 36-28

**KADETE NESKAK. KOPA TXAPELKETA**  
Leizaran Txiki-Verkol Aloña 20-13  
Verkol Aloña-Urrietako 24-12





**iKER**

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**%25 DESKONTUA  
SUKALDE ALTZARIETAN**

Apirilaren 15etik ekainaren 15era

**FAGOR** 

## Erosi 307\* bat

Hila amaitu baino lehen, 11.840 eurotik aurrera duzu, eta  
20 hazbeteko LCD telebista  
bat opari egingo dizugu, etxean ere disfruta dezazun



\* 3 eta 5 atetako berlinak



PEUGEOT

# ZIORLA AUTOAK

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL



• LEHENENGO MAILA, IGOERA TXAPELKETA

# Igoera bere esku du Mugarri Alkesak

*Liderra menderatuta, Askartzaren porrotak eskura jarri die igoera arrasatearrei*

MUGARRI ALKESA  
**90-71**  
CONSMETAL

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (6), Domingo (2), Mallabiabarrena (12), M. Biain (2), Barberena (17), Herzog, Kintana (24), Hernandez, Alartzia (13), Aranburu, I. Biain (14) eta Isasa.

**Consmetal** | Martikorena, Abaurrena, Etxeberria, Sobrino, Lizarraga (10), De la Sen (5), Labiano (21), Les (6), Alberdi, Davila (14), Zalakain (10) eta Salba (5).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 21-18. Bigarren laurdena 52-30. Hirugarren laurdena 75-43. Laugarren laurdena 90-71.



JOSETXO ARANTZABAL

Iban Herzogek barneratze onak egin zituen zapatuan.

Mireia Bikuña

Askartzaren kontra Leioan galdu ondoren, igoerako bigarren txartela bizkaitarren esku zegoen. Ordutik hona Mugarri Alkesak partidu guztiak irabazi ditu eta talde bizkaitarrak bi galdu ditu. Azkena asteburu honetan. Horrenbestez, Gorka Zurutuaren taldea sailkapeneko bigarrena da.

Partidu bakarra geratzen da igoera fasea amaitzeko, eguaz-

tenean UPV Arabaren aurka jokatu dutena. Eta arrasatearren esku dago orain igoera.

## LIDERRA ITURRIPEN

Askartzaren porrota ezagutu aurretik partidu bikaina jokatu zuen Mugarri Alkesak. Consmetal talde nafarra zen aurkaria, igoera faseko liderra eta dudarik gabe talderik indartsuena.

Baina Mugarri Alkesa partidua irabazteko gai izan zen.

## BIGARREN LAURDENA, ERABAKIGARRIA

Lehenengo laurdeneko parekotasunaren ondoren, partidua bigarren laurdenean erabaki zen. Talde nafarrak saskiratze asko huts egin zituen. Etxeko taldeak, aldiz, jokaldi azkarrak egin ez 31 puntu lortu zituen. Mugarri Alkesak 35 puntuko aldea lortu zuen hirugarren laurdenean.

Consmetal taldea markagailua txukuntzen saiatu zen.

• NESKEN BIGARREN MAILA

# Partidu hasiera txarra egin zuten

ESKORIATZA  
**55-64**  
LAMAISON

**Eskoriatza** | Serrano (5), Laborda (5), Gomez (3), Caceres (4), Usabiaga (4), Soriano, Exposito (24), Etxeberria (6), Agirrezabalaga eta Alartzia (5).

**Lamaison** | Fenaux (2), Garriz (2), Elbusto, Urabaia (9), Oiariz (20), San Martin (8), Labayru (5), Martinez de Morentza (6), Martinez (10) eta Gartzia (2).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 7-16. Bigarren laurdena 17-37. Hirugarren laurdena 38-53. Laugarren laurdena 55-64.

## Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak lehenengo zatian galdu zuen partidua. Atsedenean 17-37 ziren atzetik Javi Corbalen neskek; alde handiegia, bigarren zatian puntu guztiak murriztu ahal izateko.

Lehenengo laurdena gaizki hasi zuen etxeko taldeak. Defentsan huts asko egin zituzten eta errebotea hartzeko orduan ez ziren fin aritu eskoriatzarrak. Hala, lehenengo laurdeneko partziala 7-16 izan zen.

## ATSEDENAREN OSTEAN ONDO

Bigarren zatian indarberrituta kantxaratu ziren eskoriatzarrak. 4. minuturako 12-3ko partziala zuten alde. Defentsan lan ona egin zuten, baloi asko lapurtuta. Aipagarria izan zen Yaizak eginiko partidua; guztira 24 tanto lortu zituen Eskoriatzako jokalariek. Joko azkarra eta eraginkorra egin zuten. Hala ere, ez zen nahikoa izan markagailuko aldea berdintzeko. Azkenean, bederatzi puntuko aldearekin galdu zuten.

Bi partidu besterik ez zaizkio geratzen Eskoriatzako taldeari liga amaitzeko. Orain, azkenak dira 30 punturekin. Hurrengo partidua etxean jokatu dute EHU-UPV Atletikoren aurka.



JOSETXO ARANTZABAL

Maite baloia lapurtu nahian, Yaizaren begiradapean.

Apirilaren 24a:  
084 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA  
Harpidedunen

**txokoa**

## Sariak astero!

Astelehenean, apirilak 24, sari hauek izen-abizenak izango dituzte. Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

### 084 zozketako saridunak

Sei gonbidapen EIBAR-TENERIFE futbol partidurako (saridun bakoitzari bi).


- Esteban Otadui Iribecampos (Arrasate)
- Desiderio Almena Pecos (Antzuola)
- Jose Agirre Arregi (Bergara)
- Juan Carrillo Montoya (Eskoriatza)
- Joakin Urteaga Ziardegi (Aretxabaleta)
- Aitor Alzelai Mendia (Oñati)

Apirilaren 26an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango diren AUPA ETXEBESTE ETA SAREAN film laburraren estreinaldirako bi sarrera (saridun bakoitzari bi).

- Arantxa Uriarte Agirre (Arrasate)
- Kontxi Mendizabal Sagastigutxia (Antzuola)

### Maiatzaren 1eko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bi).



- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi)

### Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidedun saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**  
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

**36 euro**  
2006 bukaera arte

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Mendi lasterketa

• II. ALOÑAKO IGOERA

# Bigarren urtez, Aloñako Igoera Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izango da

*Eguaztenean aurkeztu zuten Aloñako Igoeraren II. ekitaldia; iazkoa hobetzea dute helburu antolatzaileek*

Arantzazu Ezkibel

Datorren domekan jokatu da II. Aloñako Igoera. Iaz lasterketak izan zuen arrakasta ikusirik, antolatzaileak pozik agertu dira aurtengo edizioari begira. Oraingoan ere, Aloñako Igoera Euskal Herriko V. mendi lasterketarako puntuagarria izango da.

## IBILBIDE BERA

Aloñako Igoerak aurreko urtekoaren ibilbide bera izango du eta korrikalariak 10:30ean aterako dira Oñatiko plazatik.

Oñati eta Urtiagain arteko zatia zuhaitz artean izango da. Urtiagainen Belarrera doan bidexka hartuko dute, Aloña gainera iritsi arte. Ibilbidearen puntu horretan denbora kontrola egongo da. Aurreko urtearekin alderatuz, bi denbora kontrol kendu dituzte. "Urtiagain eta Belarreko denbora kontrolak



ARANTZAZU EZKIBEL

Lasterketa amaitzen dutenek Robers etxeak emandako elastikoa jasoko dute.

kendu egin ditugu. Oso zati txikia da erreferentziatzeko denbora hartzeko", esan digute antolatzaileek.

Aloñatik Urtiagainera bide beretik jaitsiko dira. Han, Gorordorako bidea hartuko dute. Eta

Oñatiko plazara kale nagusitik iritsiko dira.

Urtiagainen, Aloñan eta Gorordon edatekoa egongo da. Belarren, berriz, horniketa likidoaz gain horniketa solidoa ere izango dute korrikalariak.

SANTI MENDIOLA | ANTOLATZAILEA

## "Denbora laburrean mila metro igo behar dira"

Zer-nolako maila espero duzue aurtengo edizioan?

Parte-hartzaileei dagokienez, aurtengoz ez dugu Euskadiko selekzioa kiderik izango. Beste proba batzuk jokatu behar dituzte eta azkenean ezin izango dira etorri. Iazko irabazle Ionut Zinka ere ez da etorriko. Beraz, herriko jendea eta mendi igoerako zirkuituan ibiltzen diren korrikalariak espero ditugu. Maila ona emango dutela uste dugu.

Aurtengoz ere Euskadiko kopan sartu da Aloñako Igoera. Zer dakar horrek?

Aurreko urtekoa sorpresa izan zen bai guretzat eta bai federazioarentzat ere. Igoera oso ondo ateratu zen eta pozik geratu ginen. Aurtengoz, hasiera batean, Aloñako Igoera ez zen Euskadiko kopan sartu behar, baina azkenean federazioak konfiantza jarri du gugaran eta bigarren izango gara Euskadiko kopan.

Aloñako Igoerak zer ezaugarri ditu?

Igoera oso gogorra da. Denbora laburrean asko igo behar da. Aloñako Igoera izango da



ASTELEHENKO GOIENKARIA

maila handiena duen lasterketa. 16 kilometroan 2.016 metroko gorabehera dago; hau da, zortzi kilometroan 1.000 metro igotzen dira. Beraz, ezaugarri berezi hori da. Jaitsieran teknikoki ona izatea beharrezkoa da.

Aurreko urteko maila hobetzea da helburua?

Espero dugu hobetzea. Elite mailako jendea ez da etorriko, baina datozenen artean maila polita egongo dela uste dugu. Ikusleei dagokienez, Oñatiko herriak erantzun ona emango du. Beraz, eguraldia lagun izatea bakarrik falta zaigu.

• BRUESA SASKIBALOI TALDEKOAK ARRASATEN



## MARTITZENEAN ETORRI ZIREN ASTORE ENPRESA BISITATZERA

Bruesa Gipuzkoa Basket saskibaloitza taldea Arrasaten izan zen Astore enpresa bisitatzen. Astore dugu taldearen babesle eta taldeetako jokalariek eta ordezkariek euren jantziak nola egiten dituzten gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Devin Smith jokalaria estatubatuarra izan ezik, taldeko jokalariek guztiak izan ziren Astore enpresaren lantegian, Kataiden. Haiekin batera Miguel Santos taldeko presidentea eta Porfirio Fisac entrenatzailea ere etorri ziren Arrasatera. Diseinu departamentuan egiten den lana azaldu zuten bisitariak Jose Ignacio Garro produktio arduradunak. Jarraian, produktuak egiteko jarraitzen duten prozesuaren gaineko azalpenak jaso zituzten.

• ELGETAKO LAU T'ERDIKO ETB KANTXA TXAPELKETA



## ELGETAKO PILOTALEKURA ITZULI DA LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

ETB kantxako lau t'erdiko pilota jaialdia berriro ere Elgetako pilotalekura itzuli da. Udal Pilotalekuaren zaharbertzearen ondoren, egubakoitz iluntzean jokatu ziren lehenengo partiduetan. 23 urte azpikoek jardun zuten egubakoitzean. Olo nafarrak eta Zabala bizkaitarrak ireki zuten jaialdia. Nafarrak ez zuten arazorik izan Zabala mendean hartzeko; 22-10 nagusitu zen Olo. Jarraian, Antzuolako Mendizabal eta Otsalo nafarra aritu ziren nor baino nor gehiago. Ibarreko pilotaria ahalegindu zen erakustaldi ona egiten, baina ezin izan zuten Otsalo nafarraren aurrean ezer egin. 22-9 nagusitu zitzaion jokalaria nafarra Antzuolako pilotariari. Elgetako txapelketak uztail arte iraungo du.



GABI ELORRIAGA | ARETXABALETARRA, ATHLETICEKO BAZKIDEA

# "Ze ona den Henry, pena ez dela Portugaletekoa"

Xabier Urtzelai

**Athleticendako zigor gogorregia, Villaren kontura.**

Ba bai, Athleticetik ez zuelako merezi partidua galtzea. Baina partidua irabazteko gola egin behar da, eta *jogo bonito* eta horrelakoak, ba... Clementek ere esan du, gurago duela txarto jokatu baina partidua irabaztea.

**Bazirudien talde zuri-gorriak kontrolpean zuela partidua.**

Bah! Athletic gauza da 88 minutuan jokoa kontrolpean izateko, eta 89. minutuan kale egiteko. Baina, hiru aldiz bota badugu atera, zer gura dugu ba?

**Ze ona den Villa.**

Bai, pena ez dela Barakaldo-koa.

**Gutxienez, gainontzeko taldeen emaitzak ere ez dira onak izan.**

Bai, baina bi puntura daude jaitsiera postuak, bi puntura. Datorren astean galdu eta Alavesek irabazi egiten badu, zer? Kontrario gogorren kontra jokatu behar du Athleticetik, eta gaitza izango da.

**Azpimarratu, onerako eta txarre-rako, Athleticetako hainbat jokalarik.**

Ezin dut ulertu Casas zelan dabilen Lehenengo Mailan. Eta, horrekin batera, ezin dut ulertu 20 urte izanda Llorentek zelan ez duen jokaldietan gehiago borrokatzen; salto ere ez du egiten-eta. Yestek kalitatea esan gura du, eta Ustaritz gustatzen zait izugarri. **Jar zaituz Clementeren lekuan, eta eskatu presidenteari datorren urterako hiru jokalarik euskaldunak, noski.**

Espanyoleko atezain Iraizoz, Alaveseko atzelari Sarriegi eta



XABIER URTZELAI

Mondrako kadete mailako entrenatzaileetako bat da Gabi.

Realeko erdilari Gabilondo fitxatuko nituzke. Noski, ametsetan hasiz gero, Del Horno, Aranburu...

**Liga eta Athletic alde batera utzita, aste barruan ere ez gara aspertuko, Txapelaldun Liga dago.**

**"Athleticetik hirutan jaurti zuen atzo baloia atera; zer gura dugu ba?"**

Partidu ikusgarriak izango dira. Bartzelonak sekulako taldea dauka, baina kontuz Milanekin. Talde italiarrekin... argi; horiek gauza dira-eta Nou Camp-en ezustea emateko. Eta, bestalde, zelako taldea daukan Arsenalak. Defentsa horri ezinezkoa da gola egitea, eta Cesc zelaia erdian ikustea... Eta amaitzeko, aurrean Henry. Ze ona den, pena ez dela Portugaletekoa. Ah, eta Realaren gainean ez didazu galdetu behar, ala?

**Esan bada, Realaren gainean gura duzuna.**

Ez, hobe ez (Barre).

## Harmailatik

### Esker onekoa izatea




Xabier Urtzelai

**Oparia.** Ez zen izan, ez, betiko Vila-real. Ordezko jokalaririk zelairatuz Realari opari galanta egin zion Manuel Pellegrinik, eta Realak, esker oneko taldea dela erakutsita, ez zion sari horri muzin egin. Vila-real talde handia dela diotenei oker dabilzala esango diet. Sekulako balentria dabilzala egiten, ados, baina talde handia izateko gauza bat behar da: ordezkoekin jokatu eta joko mailak behera ez egitea; eta aurtun, Bartzelonak bakarrik erakutsi du handia dela.

**Bi asteko kontua.** Zuetako askori moduan, guri ere iritsi zaigu lanera bueltatzeko ordua. Real Bernabeun egon zenetik bi jardunaldi joan dira, laino beltzak uxatzeko nahikoa denbora. Gehien behar zutenean heldu diote Bakeroren mutilek bolada onari. Eta, lehen lasaiago zebiltzan hainbat talde estutu egin dira berriz.

**Villa.** Kostako zaie San Mamesen Valentziako aurrelaria ahaztea. Atzo, Athleticetik ez zuen horrelako jipioa merezi izan. Valentziak baino gehiago egin zuten partidua irabazteko, baina urrezko lau minututan egin zuen Villak *hat-trick*-a. Bigarren eta hirugarren goleak ez dute aparteko meriturik, baina lehenengo golean, ikustekoa da pase luzea jasota zelan kontrolatzen duen baloia, norabidea emanda. Aurrelari handia izateko bidean da Villa.

**Aurrera eta atzera.** Alavesek atzera eta Osasunak aurrera. Atzetik datozeneko kostako zaie talde gorritxo Txapelaldun Ligako postuetatik kanporatzea, nahiz eta Celta indartsu dagoen. Zelako jipioa jaso zuten atzo Zaragozakoek. Hori da Kopako finala galdu izanagatik errekuperatu ezinka ibiltzea.



**Jose Mari Bakero**

Olaberekin gertatu zen moduan, norbaitek erabaki du Bakerok bulegoak utzi eta taldea berdegunetik gidatzea. Eta asmatu egin dute, emaitzek hori erakusten dute, behintzat.



**Roger Garcia**

Garitanok larruazalean izango ditu Rogerren sarrerako markak. Bi hankak aurretik zituela min egiteko keinua egin zuen Vila-realeko jokalariek. Maila erakutsi ezinka, ezintasunaren erakusle.

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

### EMAITZAK

Sevilla-Bartzelona	b.b.
Racing-Getafe	0-3
Mallorca-Osasuna	0-1
Athletic-Valentzia	0-3
Espanyol-Betis	2-0
Cadiz-Deportivo	1-1
Real Madrid-Malaga	2-1
Vila-real-Reala	0-2
Alaves-Athletic	0-1
Celta-Zaragoza	4-0

### HURRENGOAK

Deportivo-Celta
Betis-Athletic
Bartzelona-Cadiz
Malaga-Racing
Getafe-Vila-real
Reala-Sevilla
Zaragoza-Espanyol
Valentzia-Alaves
Athletic-Mallorca
Osasuna-Real Madrid

### SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	73	33	22	4	7	73	29
2. Valentzia	65	34	18	5	11	52	28
3. R.Madrid	63	34	18	7	9	60	31
4. Osasuna	62	34	19	10	5	45	39
5. Celta	57	34	18	13	3	40	30
6. Sevilla	53	33	15	10	8	40	33
7. Deportivo	52	34	14	10	10	44	39
8. Atletico	50	34	13	10	11	43	33
9. Getafe	50	34	14	12	8	50	43
10. Vila-real	49	34	12	9	13	42	34
11. Zaragoza	42	34	9	10	15	41	46
12. Reala	38	34	11	18	5	43	58
13. Betis	37	34	9	15	10	30	46
14. Espanyol	37	34	9	15	10	33	51
15. Athletic	35	34	8	15	11	33	43
16. Racing	34	34	7	14	13	29	41
17. Mallorca	34	34	7	14	13	30	47
18. Alaves	33	34	7	15	12	32	48
19. Cadiz	32	34	7	16	11	28	46
20. Malaga	24	34	5	20	9	33	56




**Kiniela**

### KINIELA

1. Vila-real-Reala	2
2. Sevilla-Bartzelona	b.b.
3. Cadiz-Deportivo	X
4. Celta-Zaragoza	1
5. Espanyol-Betis	1
6. Alaves-Athletic	2
7. Mallorca-Osasuna	2
8. Real Madrid-Malaga	1
9. Racing-Getafe	2
10. Xerez-Levante	2
11. Tenerife-Valladolid	1
12. Sporting-Lleida	1
13. Recreativo-Gimnastic	1
14. Almeria-Elche	1
15. Athletic-Valentzia	2

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa





Zigor Urain arrasatearrak Kataluniako mendiko bizikleta itzulia (Volcat) irabazi berri du. Aste Santuko egunetan jokatu da itzulia eta Master 30 mailan azkarrena izan

da Zigor 7:18:02 denbora eginda. Arrasatearra gaztetatik bizikletaren gainean ibili den arren, Kataluniakoa izan da irabazten duen lehenengo itzuli handia.

Maiatzaren 21ean Arrasaten jokatu den proba antolatzen ari da orain, Ederra taldekoekin batera. Etxekoen aurrean lan txukuna egiteko asmoa duela esan digu.

ZIGOR URAIN | MENDIKO BIZIKLETA-ZALEA

## “Ondo pasatzera joan eta garaipenarekin itzuli naiz”

Arantzazu Ezkibel

**Ze helbururekin joan zinen Kataluniako itzulira?**

Aste Santuko oporrak zirela aprobetxatuz, ondo pasatzeko intentzioarekin joan ginen Katalunia aldera. Behin lehenengo etapan ondo ibili nintzela ikusi eta gero, bigarren eta hirugarren etapetan zerbait polita egitera ateratu nintzen.

**Zelako itzulia izan da Volcat?**

Hiru etapako itzulia izan da. Lehenengo egunean 50 kilometro egin behar izan genituen. Bigarren eguneko etapa luzeena izan zen, 70 kilometrokoa, eta azkena 36 kilometrokoa. Etapa politikak izan dira orokorrean, baina baita gogorrak ere.

Maila ona egon da itzulian. Elite mailako irabazlea dani-markar bat izan da, baina beste parte-hartzaile guztiak Estatu mailakoak izan gara.

**Non eta zenbat entrenatzen zarete mendiko bizikletan ibiltzen zaretenak?**

Gehienbat errepideko bizikletarekin ibiltzen gara. Ni astean lau aldiz ateratzen naiz bizikletan ibiltzera. Teknika landu nahi dugunean, ordea, mendira joaten gara mendiko bizikletarekin. Arrasaten, guk prestatutako zirkuitu bat dago, eta han ere ibiltzen gara teknika landu nahian. **Ibarrean mendiko bizikleta-zale asko al dago?**

Bai. Lehiaketetan jende askok hartzen du parte. Ederra talde-

an sei pertsona aritzen gara. Aurretik, kadete mailako talde berri bat ateratu da, Lizarralde Kirolak. Baina bere kabuz ibiltzen den jende asko dago.

**Noiz hasi da mendi bizikleta denboraldia?**

Udaberrian hasten da denboraldia. Orain hilabete hasi nintzen eta dagoeneko Euskadiko Openeko hiru probatan hartu dut parte, Kataluniako itzuliaz gain.

Normalean Euskal Herriko probetan ibiltzen gara, kanpora oso gutxi joaten gara. Hemen proba mordera antolatzen dira, baina itzuliak ez asko.

**Zein proba duzu gustukoena?**

Proba guztietan zirkuitu politik antolatzen dituzte. Beraz, bat aipatzea zaila da. Hala ere, etxean jokatzeko dugulako, Arrasateko proba berezia da. Maiatzaren 21ean izango da proba eta dagoeneko lanean ari gara.

**“Maiatzaren 21ean izango da Arrasateko proba; etxean lehiatzea berezia izango da”**



ARANTZAZU EZKIBEL

Ederra taberna arropa emateaz arduratzen da, Zigorri, kasu.



**SEGURTASUN ETA EROSOTASUN HANDIAGOA**

**-gatik eta -tik**  
bi atzizki, esanahi ezberdina

Guk nahiago dugu esatea  
**16.800 € -gatik**

**C-MAX 30** urtemuga

- Azken belaunaldiko TDCi motorra
- Sei aire-zaku IPSrekin
- ABS + EBD
- Bi aldeko aire-girogailua
- Irrati CDa
- V2C: ahots eta Bluetooth® bidezko kontrola
- Pribatutasun kristalak
- Abiadura kontrola.

**Eta guztia 16.800 €-gatik**

**MUGARRI AUTOAK** Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Ford Focus C-MAX 

Salneurria hil amaiera arte baliagarria Penintsula eta Balear Uharteetan Ford C-MAX Trend TDCi 90 ZPrendako, Prever Plana, Ford-en ekarpena eta kontzesionarioarena bane. C-MAX gama: kontsumoa 4,8- 7,3 l/100 km-ko. CO<sub>2</sub> emisioak 127- 176 g/km-ko. Aleazio lantak (17") ez daude bane. Bluetooth® marka eta logotipoak Bluetooth SIG INCren jabetzakoak dira eta marka horien erabilpena Ford Company-ren partetik dagokion lizentziarekin egingo da.



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Ibarreko liburutegiek hainbat ekitaldi antolatu dute Liburuaren Egunaren harira | 24
- Maiatzeko lehendabiziko hiru asteburuetan erromeriak izango dira Bergaran | 27

Cool Panic eta Hot Dogs taldeek disko bana aurkeztu zuten Bergaran | 24

## DES-KONTROL TALDEA



JOSETXO ARANTZABAL

3.60 aretoa goraino bete eta jarraitzaileak piztea lortu zuten zuzeneko bortitz eta azkarrean.

**STREET PUNKA** | DISKO BERRIA AURKEZTU ZUTEN BETIKO JARRAITZAILEEN AURREAN

## Talde izaera indartuta, erronka berrietarako garaia iritsi zaiela dirudi

*Disko berria Oihukarekin argitaratzea erabakita, erronka berriei erantzuteko prest daudela frogatu zuten zapatuan Des-kontrolkoek; taldearekin konpromisoa indartu dutela ematen du*

Jon Berezibar

Pauso garrantzitsua egin dute aurrera Des-kontrolkoek disko berriarekin. *Duintasunez eutsi* izenarekin bataiatu dute eta eusteko tenka horretan talde izaera are gehiago finkatuz aukeratu dute aurrera egitea. Oihuka moduko diskoetxe batekin sinatzea taldearen izaera kolokan jartzera hel badaiteke ere, ez dirudi kalterako izan zaienik. Aldaketak, baina, igarri ziren zapatu gauean 3.60en, baina onera. Agian konpromiso berriek boskoteari taldeari seriotasun handiagoarekin eusteko balio izan diote eta Des-kontrolkoak inoiz baino batuago ageri dira eszenatokian, betiko egurra emanda.

Los Dryheavers estatubatuarak izan zituzten gonbidatu moduan jaialdia irekitzeko. Taldearen lagun izanda, giro bikaina izan zuten hasieratik. Amerikarrek zainetan daramaten eszenatokiko-piztiaren odola badutela erakutsi zuten. Musika punka egin arren hardcore ukitu nabariak atera zituzten eta giroa apartekoa izan zen.

### GARRAK HARROTZEN

Abesti berriak aurkeztu zituzten Des-kontrolkoek jarraian. Ikusle ugariarekin, benetan gazteak asko, lehen akordeekin aretoa piztea lortu zuten eta hortik aurrera sutara egurra besterik ez zuten bota. Abesti berriek harrera oso ona izan zuten, baina benetan

garrak harrotu zituztenak euren kantu mitikoak izan ziren. Horietan, gainera, taldekoen lagun asko igo zen eszenatokira, kontzertua baino gehiago jaialdi bihurtuta.

**Los Dryheaversek ireki zuten gaua, giro bikaineko kontzertua eginda**

**Abesti berriek eta kantu mitikoek piztu zituzten zale ezin sutuagoak**

Erronka berrien garaia heldu zaie, antza, oraingo honetan. Taldeak itzulera ezin hobea egin du. Disko berriarekin eta inoizko harrera onarekin, igarri zen boskoteak taldearen aldeko apustu indartsua egin duela, etorkizunari begira. Diskoetxeak ere hasi dira honelako taldeei begia botatzen eta argi dago horren ildoan euskal eszenan Des-kontrolkoak aitzindari izan direla. Diskoak disko, hala ere, CDa ez da horren moduko talde baten euskarri. Zuzenean hartzen dute izaera eta indarra eta zapatuan berriz ere frogatu zuten askori eusteko gai direla. Eta inoiz indarrak ahultzekotan han daude euren zaleak, musikariak bezain grinati zuzenekoaz gozatzen.



DES-KONTROL TALDEA

• TALDEAK GORAKA JARRAITZEN DU



**SUTAN ETA IZERDI BATEN.** Hitz gutxi behar dute argazkiek kontzertuan zuzenean bizitakoak azaltzeko. Argi dago, nahiz eta taldeak kanpoan gero eta arrakasta handiagoa izaten hasi, herrian bertan dituztela jarraitzaileak sutsuenak. Aretoa goraino beteta, ikusleek guztia eman zuten zapatuan. Jarraitzaileek eskainitakoa ere ikuskizunaren zati handi bat izan zen zapatuan.



**GERATZEKO ASMORIK TXIKIENA ERE EZ.** Aurreko gauean Barakaldon izan zuten kontzertua, baina zaturako ere energia nahikoa gorde zuten Des-kontrolkoek. Geldi geratzeko asmorik ez daukatela argi dago. Hamaika kontzertu lotuta eta promozio lan handiarekin, 10 urteren ostean badirudi benetako aireeratzea lortzen dabilzala oraino honetan. Diotenez, lan handia dago atzetik.

HARITZ UNAMUNO | ABESLARIA

“Banaketa zabala nahi genuen, eta Oihukak eskaini digu hori”

Jon Berezibar

Oihukarekin plazaratu dute Des-kontrolkoek *Duintasunez eutsi* disko berria. Banaketa ona eta kontzertu piloak lortu dituzte Arrasatekoek disko berriarekin.

Disko berriarekin sekulako oihartzuna lortzen ari zarete. Espero zenuten?

Azkeneko lanak izandako erantzuna ikusita, zelanbait espero genuen. Gainera, Oihukarekin promozio zabala izaten gabiltza. Orain arte gure kontu egin dugu lan guztia; orain karteekin, irrati elkarriketak... Beste maila baten dago lan egiteko modua.

Horrek taldeari konpromiso handia eskatzen dio?

Beste seriotasun batekin hartu behar genuela bagenekien. Lehen noizean behin jo eta kito zen, jotzea zen kontua. Aurretik ere, azkeneko bi urteetan ganorarekin genbiltzan eta lan handiagoa egitera bultzatu gaitu egoera berriak. Kanpoan kontzertu pila bat atera zaizkigu: Lleidan, Vigon, Santiagon, Gironan... Kanpoko jende askori asko gustatu zaiola jakin dugu.

Punk-oi! egiten duten taldeei orain gero eta kasu handiagoa egiten dabilzala ematen du.

Gu hasi ginenean ez zegoen gaur egun dagoen mugimendua. Gainera, ikusita Brigada Crimalekoei ere Gorrek argitaratu ziela eta erantzun ona jaso zutela, diskoetxeak ere erantzuten hasi dira. Eurek, zalantza barik, saldu besterik ez dute gura egin, eta agian guretzat hori ez da aproposena. Hala ere, gaur egun hemengo diskoetxeak zelan dauden ikusita, ez dago ezer. Atzerriko diskoetxe batekin banatzeko aukera ere aztertu genuen, baina horiek gurean oso banaketa



JOSETXO ARANTZABAL

“Oihuka agian ez da aproposena, baina gura genuen hemen ondo zabaltzea”

“Taldea mugitzen jakin dugu eta lan horretatik lortu dugu horrenbeste irtetea”

eskasa izaten dute eta horregatik geratu gara Oihukarekin, gure helburua, lehenengo eta behin, hemen ganoraz zabaltzea da-eta. Kanpoan ere asko jo duzue; asko mugitzen zarete?

Zerutik ez da ezer jausten eta lan egin barik ez dago ezer lortzerik. Taldea mugitzen baduzu ereindakoa jasotzen duzu azkenean. Talde asko, gure moduan, orain dela hamar urte hasi eta ez dira kanpora atera ere egin. Gaitasuna talde batek baino gehiagok dauka, baina lana beti egin behar da, eta emaitzak jaso ditugu.

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ATE IREKIKO JARDUNALDIAK**  
**2006-2007**

**GOI MAILAKO HIEZIKETA ZIKLOAK**

agorosabel@eps.mondragon.edu  
Tel: 943 73 96 30  
www.eps.mondragon.edu

2006-2007			MGEP RDPII
EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
2006.04.26	18:00	5001	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sistema Informatikoen Administrazioa.</li> <li>Informatika-Aplikazioen Garapena <b>BERRIA</b></li> <li>Telekomunikazio eta Informatika Sistemak.</li> <li>Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> </ul>
2006.05.24	18:00	5001	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mekanizate Bidezko Ekoizpena.</li> <li>Proiektu Mekanikoen Garapena.</li> <li>Industri Ekipoaren Mantentzea.</li> <li>Sistema Informatikoen Administrazioa.</li> <li>Informatika-Aplikazioen Garapena <b>BERRIA</b></li> <li>Telekomunikazio eta Informatika Sistemak.</li> <li>Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> </ul>



## Ganbara abesbatza 4. sailkatu da Eslovenian

L.Z.

Pozik egoteko moduan dira Oñatiko Ganbara Abesbatzako kideak. Laugarren saria ekarri dute asteburuan Esloveniako Maribor hirian jokatu den Nazioarteko VIII. Koru Lehiaketatik. Gainera, lehenengo saria eskuratu dute folkloreaken atalean.

Oñatitik 33 lagun joan dira Esloveniara koru lehiaketan parte hartzera. Egubakoitzean egin zuten lehenengo emanaldia. Hamabi taldek hartu zuten parte lehenengo kanporatzean. Esan beharra dago 34 talde aurkeztu zirela lehiaketara, baina epaimahaiak hamabi aukeratu zituen lehiaketan parte hartzeko.

Emanaldi txukuna egin zuten Ganbarak lehenengo kanporaketan eta domekako finalerako sailkatzea lortu zuten beste lau taldeekin batera. Domeka goizean jokatu zen finala eta arratsaldean ezagutu zuten oñatiarrek epaimahaiaren erabakia. Laugarren sariarekin itzuli da Ganbara Esloveniari. Folkloreaken atalean, berriz, lehen saria jaso dute.



Domeka goizean jokatu zen finala.



IRAKURTZEKO ZALETASUNA SUSTATU GURAN | LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## Liburutegiek astean ospatuko dute liburuaren eguna, azoka eta irakurketekin

*Atzoko ospakizun eguna aitzakia hartuta, ibarrean ere irakurtzera animatu gura gaituzte liburutegietan*

Jon Berezibar

Eguna, modu ofizialean, atzo izan bazen ere, ibarreko herri askotan oraingo astean zehar hainbat ekintza gertatu dituzte liburutegiak ezagutzera eman eta irakurtzeko zaletasuna herritarren artean pizteko. Ospakizunekin

aurreratu zirenak Bergara eta Elgetako liburutegietakoak izan ziren. Elgetan egubakoitzean atera zuten liburutegia kalera eta Bergaran gaur egiten dabilzan neurrian, zapatuan ere ipini zituzten liburuak udaletxeko arkupeetan. Mila Agirrezabal arduradunak esan bezala, "irakurle nagusiagoengana gerturatzeko aukera da hau, batzuk liburutegia umeendako besterik ez dela uste dute-eta". Zapatu goiza, antza, nahiko ondo joan zitzaien bergararrei, 15 bazkide berri egin zituzten-eta. Ekintza potoloenak, baina, gaurtik aurrera egingo dituzte, batez ere Arrasaten eta Eskoriatzan.

### AZOKAK ETA IRAKURKETAK ASTE HONETAN

Lehenengoan erabilitako liburuaren azoka egingo dute Monterron jauregian. Hala, egoera txarrean dauden liburuak, azken lau edo bost urteetan gutxi irakurritakoak edo herritarrek emandakoak jarriko dituzte azoka horretan Arrasateko liburu-

tegiko arduradunek. Bazkideek, gainera, horietako bi liburu eraman ahal izango dituzte opari. Horrez gainera, hamar euskal idazleren gomendioekin doan banatzeko gida prestatu dute liburutegiko arduradunek.

Eskoriatzari dagokionez, zapatuan izango da azoka: liburu bat eramanaz gero, bi hartu ahal izango dituzte trukean herritarrek. Era berean, bai Eskoriatzan zein Oñatin haurrendako irakurketa bereziak antolatu dituzte egun bat baino gehiagotan.

Aramaion ere bigarren esku-ko azoka dabilta prestatzen zaturako.

**Arrasaten, gaur, liburu zaharrak emango dizkiete bazkideei**

## Sasoi betean daude bi rock taldeak

*Hirugarren diskoa dute kalean Cool Panic zein The Hot Dogs taldeek, eta Bergaran aurkeztu zituzten zapatuan*

A.G.

Txapa Irratiak antolatuta, Cool Panic eta The Hot Dogs taldeek kontzertua egin zuten zapatuan Bergarako gaztetxean. Jende dezente hurbildu zen rock taldeon azken abestiak entzuterako; izan

ere, biek dute labetik atera berria hirugarren diskoa.

Etxeko taldeak eman zion hasiera kontzertuari. Gero eta soinu txukunagoa dute bergararrek eta sasoiako daudela erakutsi zuten. Nabari zaie eskarmentuko jendea dela, eta ezin aipamenik gabe utzi Itziar Iturbe abeslariaren ahots berezia.

Urretxuko The Hot Dogs taldekoek ere saio ona egin zuten. Kaki Arkarazorekin grabatu dute hirugarren lana. Gitarra oso landuak entzun genizkien, baita baladaren bat ere. Bere estiloan, Jon abeslaria oso indartsu aritu zen.



Bergarako Cool Panic taldekoak oso look dotorearekin irten ziren gaztetxeko eszenara.





**BERANGO**

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

**LOOS** Q U A T R O  
ALTZARI INTEGRALAK

Tel.: 943 79 01 92  
Gipuzkoa etorbidea 1  
20500 Arrasate

Muebles

**4 URTE**  
*interes barik*

**Kabía**

Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23  
20500 Arrasate  
Tel./Faxa: 943 79 27 70

**ERAKUSKETA BERRIA**





Edozein kafetegi edo lantokitan ahoz aho dabilzan gaiak telebistara eraman gura ditu 'Kalaka' eztabaida saio berriak. Etzi estreinatuko da ETB-1en saioa eta estetika

ausartarekin eta kolaboratzaile freskoekin eguaztenetako gauen alternatiba izan gura dute Euzkitze eta taldekoek. Promozio-iragarkia Espaloian egin zuten eta hantxe

izan zen aurkezlea saio berrirako grabaketak egiten. Guk domekan egin genuen hitzordua, debuta baino lehenago Azkoitiko kazetariarekin berba egiteko.

XABIER EUZKITZE | KAZETARIA

## "Politika gaiek gehiegi baldintzatzen dute gure jarduna, baita kazetariona ere"

Jon Berezibar

**Sorginen Laratza-n entretenimendura dedikatzen zineten gehiago; kazetaritzara itzultzeko gozua zeneukan?**

Kazetaritza hutsa zer den ere esaten jakin beharko genuke. Oraingo honetan lotuago egongo gara gaurkotasunera, baina hori ulertzeko ere modu asko daude. Herri santu honetan gaurkotasun politikorako lotura handiegia egon da beti eta gehiegi baldintzatu izan du gure jarduna, baita kazetariona ere. Une honetan edozein kafetegitan, Elgetan, Donostian edo Elorrioren, edozein tertuliatan jendearen solaserako gai izan daitezkeen horiek errekuperatu eta telebistako eztabaidagai bihurtu nahi ditugu. Horrek ez du esan nahi gai politikoak jorratuko ez ditugunik, baina erro politikodunak ere ikuspegi humanotik tratatu nahi ditugu, gizarte gaiei lehentasuna emanda. Goiz honetan denon eztabaidagai da Spencer Tunick Donostian egiten dabilen argazki saio hori. Zergatik ez dezake horrek lehentasuna izan gaur bertan saioa egin beharko bagen? Politikari ez diogu muzin egingo, une interesgarrian gaude-eta.

**Hizlariak ere zeresana emateko modukoak aukeratu dituzue?**

Euskal mundua dena da, dituen mugak ditu, gutxi garelara badakigu eta solaskide erabat berriak eta *birjinak* bilatzea ez da erraza, baina ahalegin berezia egin nahi dugu orain arte ezagutzen ez dugun jendeak originaltasuna, freskotasuna eta naturaltasuna emateko eta uste dut asmatuko dugula.

**Ez dago utzikeria apur bat ETB-1eko programazioan? Zuen saioak huts hori betetzen lagunduko du?**

*Prime-time* delakoa gaur egun oso baldintzatu dago audientziekin. Euskal Telebistak, publikoa den neurrian, iruditzen zait zurrumbilo horretatik ihes egiteko ahalegina egin beharra daukala. Alde horretatik estimagarria da guri lekua uztea. Gurean moduko saio batek, beste zenbaitek ez bezala, audientzien mendetasunetik ihes egiteko ahalegina egingo du eta ETBk inork baino hobeto daki eztabaida saioak ordutegi nagusian ez direla audientzia ikaragarrikoak izaten eta garbi dago oraingo honetan beste zerbaiten bila joan direla. Gurea 22:00etan joango da, kompetentzia beldurgarria den garai baten, baina ahalegin estimagarria da, eta behar bezalako



Eguaztenean estreinatuko du Euzkitzek eztabaida saio berria ETB-1en.

erantzuna ematen saiatu behar dugu hori ikusita.

**Euskal ikuslea berezia da saio mota ezberdinei erantzuterakoan?**

Euskal ikusleen berezitasunez luze jardungo bagenu, irakurlea zur eta lur geratuko lirarteke dugun jokaeraz. Euskal hiz-

tunak hartuta, *Cronicas Marcianas*-ek gainerako euskal herriarrek baino ikusle kopuru handiagoa dauka eta beste horrenbeste gertatzen da bihotzeko kontuez aritzen diren saioei dagokienez. *Los Serrano*-k audientzia handia dauka Espainian, baina

Euskal Autonomia Erkidegoan dezentez handiagoa dauka, hamar puntu gaintuz Espainiako batez bestekoa. Pentsatzen dugu, beharbada gure burua behar baino gorago jartzen dugulako-edo, selektoagoak garelara, baina azkenean datuek besterik diote. Guk garbi daukagu kompetentzia oso gogorra daukagula fikziozko telesailekin, baina eztabaida saio bat nahi duen jendeak estetika berri bateko saioa izango du, gutxi gastatutako gonbidatuekin eta, batez ere, gaiak jorratzeko modu ausartagoarekin.

"Prime-time"-rako apustu ausarta da eztabaida saio bat egitea"

"ETBk, publikoa izanda, audientzien zurrumbilotik ihes egin beharko luke"

## 'Kalaka' saioaren promoziorako bideoa Elgetako Espaloian grabatu zuten

Edu Mendibil

Euskal Telebistak apirilaren 26an estreinatuko duen *Kalaka* saioaren promoziorako bideoa Elgetan grabatu zuten, Aste Santuaren aurretik. Xabier Euzkitzek aurkeztuko du *Kalaka* solasaldi saioa, eguaztenetan ETB-1en, 22:00etan. Fermin Etxegoien kazetari onatarrak gidoilari lanak egingo ditu.

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian grabatutako bideoarako, Euzkitzerekin batera, Xabier Otaegi bideoeko zuzendaria, zortzi tekniko eta 20 estra etorri ziren Elgetara. Horrelakoetan gertatzen denez, grabaketa geldo joan zen eta hainbat aldiz errepikatu behar izan

zituzten eszena batzuk. Kafe antzokiko zerbitzari Gorka Arizmendiarraren lekua Iñaki Arrue aktore gazteak hartu zuen. "Koadrilako baten amak helduen antzerki taldea du eta haren bitartez etorri gara... *Vaya semana!*-n ere atera izan naiz. Ikaslea naiz, denbora dut eta dirutxo bat erraz irabazten da...". Iñakik ateratzen dio kafea Euzkitzere bideoan; egunkaria irakurtzen ari dela, alboan dituen lagunen eztabaida entzuten egongo balitz bezala agertzen da bideoan Euzkitze. Horrenbeste aldiz eszena bera errepikatu ondoren, azkenerako kafea hotz zeukan. Eta Gorkak: "Prestatzen ditudan kafe gozoeekin ni kanpoan lagatzea ere!".





## Maiatzeko lehenbiziko hiru ostiraletan erromeriak izango dira Bergaran

*Maiatzaren 19rako kalejira, erromeria, herri afaria eta bertso antzerkia iragarri dituzte; giroa piztea da helburua*

Edu Mendibil

Maiatzeko ostiraletan erromeriak antolatuko dituzte Bergaran. Abarka dantza elkarte, Xamatx dantza taldea, Moises Azpiazu dantza taldea, Bergarako Bertso Eskola, Bergarako Trikitixa eskola eta Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzua dira ekimen horren bultzatzaileak. Herriko giroa alaitzea da helburu nagusia, eta azken hilabeteotan hainbat bilera egin dituzte antolatzaileek egitaraua osatzeko.

### MUNIBE PLAZAN

Eguaztenean, hilaren 26an, horren berri emango dute kultura etxean, 19:00etan.

Esan bezala, hiru emanaldi iragarri dituzte maiatzerako: lehenbizikoan, maiatzaren 5ekoan, Bergarako Ekaitz, Jone eta Aitor hirukotearekin eta Etxabe anaiekin erromeria izango da Munibe plazan, 19:00etan; hilaren 12an, berriz, Bergarako Aritz, Xabi, Enaitz, Izer eta Alabier izango dira giroa alaitzeaz arduratuko direnak.

### PROGRAMA ZABALA

Maiatzaren 19rako egitarau zabalagoa prestatu dute: Bergarako trikitilariarekin kalejira izango da 18:30etik aurrera, jarraian erromeria Munibe plazan Bergarako trikitilarien eskutik eta ondoren herri afaria Muniben bertan. Afarirako txartelak sei eurotan salduko dituzte kultura etxean eta Kortazar tabernan. Afalostean bertso antzerkia eskainiko dute Bertso Eskolako lagunek eta jaialdiari bukaera emateko Enebada taldeak alaitutako erromeria izango da.

Pazkoak ekainaren 2an hasiko dira eta aurreko asteetan giro faltarik ez egotea da antolatzaileen helburua.

## Labur

### Programa erakargarria Elgetako magia mostraren II. ekitaldirako

Magia mostraren II. ekitaldia ospatuko dute Elgetan, maiatzaren 5etik 7ra bitartean. 2003an Munduko karta-magia txapelketa irabazi zuen Migue magoak emanaldia egingo du maiatzaren 5ean. Zapatu gauean, berriz, Jandro, Jorge Blass, Arno, Karim eta Francisco Aparicio arituko dira. Eta txikienei zuzendutako jardunaldia izango da azkena, domekakoa. Eguerdia ezker hainbat saio egingo dituzte kalean, eta arratsaldean Jean Philippe Atchoum frantziarrak globomagia saioa egingo du Espaloian, 19:00etan.

### 'Emakumeak Arrasateko historian' film laburren lehiaketa

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak *Emakumeak Arrasateko historian* film laburren lehiaketa deitu du. Lehiaketaren helburua zera da: Arrasateko bizitzan, politikan, kulturean edo arlo ekonomikoan emakumeek egindako ekarpenak nabarmentzea.

Edozein nazionalitateko errealizadoreek parte hartu ahal izango dute, banaka zein taldeka. Lanak aurkezteko epea ekainaren 2ra arte dago zabalik. Irabazleak 1.500 euro eskuratuko ditu. Argibideak: [www. arrasate-mondragon.net](http://www. arrasate-mondragon.net) edo 943 79 41 39 zenbakian.

### Bergarako Udalak Koldo Eleizalde literatura lehiaketa deitu du

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 21. ekitaldia deitu du. Ipuin, bertso, komiki-tira eta ipuin kontaketa edo antzerki kategoriak bereiztu dituzte aurreko urtean. Komiki eta bertsoen sailan, edozein debagoiendarrek parte har dezake; beste sailetan, Bergaran jaio, bizi edo lan egitea beharrezkoa da. Lanak entregatzeko epea apirilaren 28ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 77 91 66 telefonoan edo [www.bergara.net/ Udala/Deialdiak/Lehiaketak](http://www.bergara.net/ Udala/Deialdiak/Lehiaketak) helbidean.

## Hitzorduk



### UEK ETA ATERKINGS TALDEAK ARRASATEN I

Egubakoitzean, hilaren 28an, 3.60 aretoan, 23:00etan

UEK eta Aterkings taldeek joko dute egubakoitzean, hilaren 28an, Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00etan. UEKren atzean Jesus Mari Agirretxea Ondarroako gitarra jotzailea eta kantaria dago. Berarekin batera, Mikel Arakistain baxuak (Etsaiak) eta Jon Gurrutxaga bateriak (Arima Beltza) 70eko hamar-

kadako hard-rocka, rock melodikoa eta erritmo biziak tartekatzen dituzte. Markinako Aterkings taldeak (argazkian) berebiziko indarra du zuzeneko emanaldietan. Pleasure Fuckers, Crime eta beste hainbat talderen estiloko punk-rock bizi-bizia. Arrakasta nabarmena lortu dute azkenaldian.

### ZINEMA I

- **Syriana Arrasaten**  
Gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean.
- **Brokeback mountain Oñatin**  
Gaur, Oñatiko kultur etxean, 19:30ean.
- **Aupa Etxebeste! eta Sarean**  
Eguaztenean, hilaren 26an, Elgetako Espaloian, 21:30ean.

### IKUSKIZUNAK I

- **'Ahulkiak' ikuskizuna**  
Itziar Lamuedra eta Patxi Santamaria aktoreekin. Testuak eta irakurketa: Harkaitz Cano. Arrasaten, Monterronen, maiatzaren 2an, 19:00etan.

### DEIAK I

- **Hitzaldia Bergaran**  
Jose Amiamak Heziketa estiloak izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 25ean, Mariaren Lagundia ikastetxean, 18:00etan.
- **Trafikoa aztergai**  
Arrasateko Udalaren laguntzaz, *Mis problemas con el tráfico* izenburuko hitzaldia izango da gaur, astelehena, Abaroa elkartearen, 18:00etan.
- **Corazon de Encina**  
Maiatzaren lehen erretiratuendako luntxa emango dute Corazon de Encina San Andreseko elkartearen. Auzoan bizi eta 80 urtetik gorakoak direnak daude gonbidatuta. Izena eman

beharra dago aurretik udal-etxean.

- **Ahots arazoak haurtzaroen**  
Mirari Perez mediku foniatrak *Ahots arazoak haurtzaroen: nola detektatu eta lagundu* izenburuko hitzaldia egingo du eguaztenean, Bergarako kultura etxean, 18:30ean.
- **Argazki ikastaroa**  
Bergarako Pol-Pol Argazki Taldearen eskutik, maiatzaren 8tik 31ra. Izena emateko epea maiatzaren 4ra arte zabalik. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

### MUSIKA I

- **Los del Gas Bergaran**  
Los del Gas musika taldeak rock kontzertua eskainiko du egubakoitzean, hilaren 28an, Tartufo jatetxean, 23:30ean.
- **3.60 aretoa**  
Zapatua, hilaren 29an, Kaotiko taldearen kontzertua, 23:00etan.
- **Kontzertua Jamen**  
No Use For A Name, The Lawrence Arms eta Versus The World taldeek joko dute Jam aretoan, maiatzaren 6an.

### ERAKUSKETAK I

- **Menchu Gal margolariaren erakusketa Aroztegin**  
Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa ikusgai izango da Bergarako Aroztegi aretoan apiril buka-

erarraino. Ordutegia hau da: astegunetan, 18:30-21:00; zapa-tuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; domeketan: 12:00-14:00.

- **Juan Jose Altunaren margolanak Ordizian**  
Juan Jose Altuna margolari arrasatearraren erakusketa dago Ordiziako kultura etxean apirilaren 28ra arte.
- **Euskal Idazle Gazteak XXI.**  
mendeko euskal idazle gazteak hobeto ezagutarazteko helburuarekin, erakusketa ibiltaria antolatu du Euskal Idazle-Elkarteak, eta Monterron kultura etxean dago maiatzaren 5era arte.
- **Maria Dolores Lonbide soraluzetarraren erakusketa**  
Maria Dolores Lonbide margolari soraluzetarraren erakusketa dago Elgetako Espaloia antzokian maiatzaren 2ra arte.
- **Itoitz Armendarizen argazkiak Eskoriatzan**  
Pirenan ateratako argazkiak ikusgai daude Inkernu tabernan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta.

### IKASTAROAK I

- **Bertsolaritza ikastaroan izena eman daiteke**  
Elgetako Udal Euskara batzordeak bertso ikastaroa antolatu nahi du. Izena emateko epea apirilaren 28ra artekoa da, udal-etxean.



Zorion agurrak



ARRASATE  
**Izaro Urizarren**  
Apirilaren 10ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Amaiur Arana**  
Apirilaren 12an, 2 urte. Zorionak eta musu handi bat. Etxekoak.



ARRASATE  
**Roberto Sancho**  
Apirilaren 23an urtebetetzea. Zorionak Moro! Lagunak.



ARRASATE  
**Eneritz Garasa**  
Apirilaren 23an urtebetetzea. Zorionak Ene! Lagunak.



ARRASATE  
**Erika Revalo**  
Apirilaren 24an urtebetetzea. Zorionak Piti! Txori eta Ima.



ARRASATE  
**Aitor Murgiondo**  
Apirilaren 25ean, 5 urte. Zorionak! Familiako guztien partetik.



ARRASATE  
**Bittor Arana**  
Apirilaren 25an. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



ARRASATE  
**Arantzazu Arana**  
Apirilaren 25ean. Zorionak eta urte askotarako Goienako lankideen partetik.



ARRASATE  
**Jessi Alonso**  
Apirilaren 27an. Zorionak Jessi! Izeben, ahizpen eta etxekoan partez.



BERGARA  
**Ander Etxaniz**  
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak etxekoan partez batez ere Iker.



OÑATI  
**Aintzane Agirre**  
Apirilaren 26an urteak. Zorionak eta urte askotarako eskalatzaile!



Jaiotakoak



**Urtzi Ramos Hidalgo**  
Arrasate • 3,055 Kg. Apirilak 9.  
Gurasoak: Cristobal (Eskoriatza) eta Isabel (Arrasate). Argazkian: Urtzi izeko M<sup>a</sup> Carmenekin.



**Ane Duandikoetxea Atxaga**  
Arrasate • 2,840 Kg. Apirilak 10.  
Gurasoak: Iñaki (Arrasate) eta Goizane (Arrasate). Argazkian: Ane aitaren besoetan lo.



**Ortzi Egurrola Roldan**  
Aretxabaleta • 3,300 Kg. Apirilak 11.  
Gurasoak: Jesus M<sup>a</sup> Priiti (Lekeitio) eta Goia (Lekeitio). Argazkian: Ortzi arreba Amaiurrekin.



**Jokin Ruiz Dovao**  
Bergara • 2,145 Kg. Apirilak 12.  
Gurasoak: Iñaki (Bergara) eta Chari (Bergara). Argazkian: Jokin bere kumatxoan bapolo.



**Maider Ruiz Dovao**  
Bergara • 2,045 Kg. Apirilak 12.  
Gurasoak: Iñaki (Bergara) eta Chari (Bergara). Argazkian: Maider bere kuman bapolo.



**Lide Azkarate Ojanguren**  
Arrasate • 3,380 Kg. Apirilak 18.  
Gurasoak: Saioa (Arrasate) eta Sergio (Arrasate). Argazkian: Lide, gurasoekin eta lehengusu Oihanekin.



**Ane Saizar Cazalis**  
Arrasate • 3,415 Kg. Apirilak 19.  
Gurasoak: Iñigo (Arrasate) eta Montse (Lekeitio). Argazkian: Ane bapolo aitaren besoetan.



**Elena Lazpita Arizmendi**  
Bergara • 2,700 Kg. Apirilak 20.  
Gurasoak: Aitor (Arrasate) eta Aintzane (Bergara). Argazkian: Elena bere kumatxoan bapolo.



**Ibai Zulueta Manero**  
Arrasate • 3,750 Kg. Apirilak 22.  
Gurasoak: Lorenzo (Altsasu) eta Ainhoa (Arrasate). Argazkian: Ibai bere amaren besoetan.



**Alaitz Salaberria Beitia**  
Eskoriatza (Marin) • 3,300 Kg. Apirilak 22.  
Gurasoak: Unai (Bergara) eta Maite (Eskoriatza). Argazkian: Alaitz bere kuman bapolo.



**Naroa Moreira Alvarez**  
Arrasate • 3,235 Kg. Apirilak 22.  
Gurasoak: Fernando (Buenos Aires) eta Eva (Barakaldo). Argazkian: Naroa jaioberria bere kuman lo.

Hildakoak

**Maria Amenabar Gallastegi**  
Arrasaten, apirilaren 19an. 94 urte.

**Victor Freire Fraja**  
Oñatin, apirilaren 20an. 63 urte.

**Esperanza Etxebarría Ugarte**  
Arrasaten, apirilaren 21ean. 91 urte.

Zoriondu  
ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**  
**ARRASATE IRRATIA**



ULERTZEKO Garai Berria

**berria<sup>2</sup>**



Gaur irratian

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:35

**Gaztetxe Martxa eta HUHEZLren jardunaldiak**

Gaztetxe Martxa abiatu zen egubakoitzean Mauletik. Hori dela eta, Beñat Irazabal elkarrizketatuko dute. Bestalde, HUHEZLren *Herri eskubideak eta mundu gobernantza* jardunaldien berri emango digu Andoni Muxikak, 11:10ean.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:15

**Eskola publikoaren festa gertatzen**

Ekainaren 4an Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatuko da Oñatin, eta bihar, apirilaren 25ean, boluntarioekin batzartuko da antolaketa batzordea. Horretaz berba egiteko Iñaki Arregi eta Imanol Arkauz elkarrizketatuko dituzte gaur.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Asteburuari gainbegiratu sakona egingo diote**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**'Euskal Y'-aren gaineko saio berezia egingo dute**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Arantzazuko Bake Zentroa berbagai**

GOITB programazioa

Astelehena, 24




**'Harmailatik', ibarreko kirol taldeen jarraipena 22:15**

Julen Iriondok aurkezturiko saioan, kirol albisteei gainbegiratu. Aste bukaeran jokatutako partiduetako irudiak eta protagonisten iritziak.

- 13:00 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste Aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste Aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Bertsolaritza.
- 18:15 Sustraiak.
- 18:45 Albiste Aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 16mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz mintegia.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 25



**'Berbaire': gizarte eta politikako gaiak 22:15**

Aste Santuko oporren bueltan, gizarte eta politikako gaiak jorratuko dituzte *Berbaire*-n. Gorka Etxabe kazetariak hainbat gonbidatu izango ditu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste Aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 Mikrosaiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Mikrosaiak.
- 16:45 Albiste Aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 M2 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Munduari Buelatka.
- 18:45 Albiste Aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 26



**'16 mm' saioaren agurra 22:15**

Inas Fernandez *Hauspo soina* eskainiko dute gaur. Amagoia Lasagabaster kazetariak aurkeztutako saioak agur esango digu gaur.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 M2 Danbaka.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste Aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 Mikrosaiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Mikrosaiak.
- 16:45 Albiste Aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste Aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16mm.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 27



**Marrazki bizidunak gaztetxoendako 13:20, 20:15**

*Popeye* eta *Card Sakura* marrazki bizidunak eskainiko dituzte astean zehar. Eguenean *Card Sakura*-ren txanda izango da, eguerdian eta iluntzean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste Aurrerapena.
- 15:00 Sustraiak.
- 15:30 Mikrosaiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz Espaloioak gauak.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Mikrosaiak.
- 16:45 Albiste Aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT Musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste Aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Sustraiak.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 28



**Asier Altuna 'Ilunpean' saio gonbidatua 21:15**

Asier Altuna *Kixi* zinema zuzendaria Oihana Elortzarekin arituko da solasean. Besteak beste, *Sarean* bere azken film laburrak mintzatuko da *Kixi*.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 MKT.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste Aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 Mikrosaiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Mikrosaiak.
- 16:45 Albiste Aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze Beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste Aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Popeye.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



**"Istiluak bere zabalera osoan hartuko ditugu. Politikatik haratago joateko asmoa daukagu"**

IÑAKI BERISTAIN | ARANTZAZU BAKETIK FUNDAZIOA  
Berriak, 2006-04-19



**"Hainbat eztabaidaren ondoren, Alohako igueran iazko ibilbide berari eutsiko diegu. Jende ugari etortzea espero dugu"**

SANTI MANDIOLA | ANTOLAKETA BATZORDEKOA  
Berriak, 2006-04-20

Gaztetxe Martxa

**BEHAZULO**


Eguenean, apirilaren 28an, 21:15ean, Goiatz Aranak aurkeztuta



*Ikustekoa!*



# Debagoieneko WEBGUNEAK



## AHOLKULARITZAK

**ESTRADOS**  
www.consultoria.estrados.com

## ANTZINAKO ALTZARIAK

**ZUMADIA**  
www.zumadia.com

## AKADEMIAK

**BASTIDA**  
www.bastida.es

## ALTZARIAK ETA APAINKETAK

**BZ-SISTEMAS**  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

**MARRUBI**  
www.marrubi.com

## ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK

**MARIA JESUS**  
www.mjargazki.com

## AROTZTEGIAK

**ARREGI**  
www.goiena.net/blogak/arregi

**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ASEGURUAK

**BRIZ ASEGURUAK**  
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

**WINTERTHUR**  
www.winterthur.es

## AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

**AUTOS ARETXA S.L**  
www.autosaretxa.com

**AUTOS RIBEGOLA –BMW-**  
www.autos-ribegola.com

**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
www.goiena.net/blogak/gallastegi

## AUTO-KONTZESIONARIOAK

**4QUATTRO 4**  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

## BIDAIA AGENTZIAK

**BARCELO**  
www.barceloviajes.com

## BITXITEGI TAILERRA

**OSCAR VITORIA**  
www.goiena.net/blogak/vitoria

## ELEKTRIZITATE MATERIALAK

**SETALDE**  
www.setalde.com

## ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

**ARETXARGI**  
www.goiena.net/blogak/aretxargi

## ERAIKUNTZAK

**CONSTRULAN**  
www.construlansl.com

## ERROTULOAK

**PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando

## ESTETIKA ZENTROAK

**ANGELA**  
www.angelaestetika.net

## GUZTIZ EDER

www.goiena.net/blogak/guztizeder

## LILURA

www.lilura.com

## MAIER

www.goiena.net/blogak/richimaier

## GARBIKETAK

**HEMEN**  
www.hemen-garbiaketak.com

## GIMNASIOAK

**IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport

## HAUR PARKEAK

**OKIPARK S.L.**  
www.goiena.net/blogak/okipark

## HESTEBETEA

**URDEKI**  
www.goiena.net/blogak/urdeki

## HIZKUNTZA AKADEMIKAK

**CIM-OÑATI BAI & BY**  
www.cim-idiomas.com

## HOTELAK

**HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

## ILE APAINDEGIAK

**RICHI**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

## INFORMATIKA

**DCA COMPANY**  
www.dcacompany.com

## INGENIARI GEOLOGIKOAK

**HARRILUR**  
www.harrilur.com

## INMOBILIARIAK

**ANBOTO**  
www.inmoarrasate.com

**ARRIETA & SAN MIGUEL**  
www.arrietasanmiguel.com

**KOROSTI**  
www.inmikorosti-com

**UDALATX**  
www.goiena.net/blogak/udalatx

## JANARIAK

**GERTU**  
www.goiena.net/blogak/gertu

## JANTZI DENDAK

**UDALAITZ**  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

## JATETXEAK

**BASTER ALDE**  
www.baster-alde.com

## DRAGON ORIENTAL

www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

## DUKIENA

www.goiena.net/blogak/dukiena

## MAULANDA

www.goiena.net/blogak/maulanda

## LANTEGI ETA TAILERRAK

**TALLERES CARPinsa S.L.**  
www.carpinsa.com

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

## EGO

www.goiena.net/blogak/ego

## LORADENDAK

**EKILORE**  
www.goiena.net/blogak/ekilore

**MAYTE**  
www.goiena.net/blogak/mayte

## OINETAKOAK

**KORO ZABALETA**  
www.goiena.net/blogak/korzabaleta

## OPARIAK

**MERKEOPARI**  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

## OPTIKAK

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
www.goiena.net/blogak/multipticas

## OSTALARITZA

**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**  
www.goiena.net/blogak/garaia

## PUBLIZITATE AGENTZIAK

**ADOX**  
www.adoxnet.com

## SKATE&SNOW

**LAINO**  
www.laino.info

## TABERNAK

**EZKUTU**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

**GUREA**  
www.goiena.net/blogak/gurea

**ORLY**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

## TATUAJEAK

**GANESHA**  
www.goiena.net/blogak/ganesha

## TAXIAK

**GORKA GARAI**  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

## UDAL ZERBITZUAK

**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**  
www.aizue.com

## ZERBITZU DIGITALAK

**ATAI**  
www.goiena.net/blogak/atai

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.





## Hamarrekoa

ASISKO URMENETA | MARRAZKILARIA

# "Diziplinak estresatu egiten nau, eta mendian ibili ostean hasten naiz lanean"

Oihana Elortza

**1. Marrazkilari izateaz gain, euskara endredatzailea ere bazara ofizioz?** Zailtasunez bai, behintzat. Gustatzen zait hizkuntza, euskara, ezagutzea eta zukua ateratzea.

**2. Gazteek arretaz entzuten dituzte zure hitzaldiak. Gaztea zara zu ere?** Azkuek nagusien esaerak eta hitz egiteko moduak batzen zituen. Nik, ordea, gurago dut gazteen hizkuntza jaso. Gazteek beti dute arrazoia, gazteek dute sinesgarritasuna eta ulergarritasuna.

**3. Euskal Herri osoan uler-tuko diren hitzak aurkitzeak ematen dizu buruko-minik?** Mina, ez, baina mila buelta eman behar izaten dizkiogu buruari hitz egoki horiek aurkitzeko.

**4. Izan gura duzu irakasle?** Euskaltegiko irakasle izan nintzen urte batzuetan. Gustatu zitzaidan esperientzia, ondo moldatzen nintzen ikasleekin. Behin galdetu zidan ikasle batek ea nik euskara perfektuan hitz egiten nuen. Eta erantzun nion ea berak perfek-

tu egiten ote zuen kaka. Egune-ro egin behar dugu euskaraz.

**5. Zer dio Euskaltzaindiak zurek promozionatzen duzun euskara ez formalaren gainean?** Ez dut ideia-rik ere. Guk gura duguna da komunikatzeko modu bat aurkitu, ez dugu araurik ematen.

**6. Jarraitzen duzu Kukumuxurako marrazkiak egiten?** Bai. Marko Armspach ere gurekin dabil lanean orain. Lau marrazkilari gaude guztira.

**7. Komikigileok autistak zaretela diozu. Zergatik?** Bakarrik egiten dugulako lan. Horregatik, ikaragarri gustatzen zait taldeko lanak egitea, jendearekin elkartu eta proiektuak martxan jartzea.

**8. Ikus-entzunezko fantzinea egitea, adibidez?** Agian egin daiteke, bai. Nik, ordea, papera maite dut, eta izugarrizko pena ematen dit fantzinean desagertu egin direlako.

**9. Zer moduz moldatzen zara zu lana bakarrik egiten?** Ondo, hartu diot martxa. Hasieran diziplina



Iruñekoa da Asisko Urmeneta, eta orain Hoztan bizi da, Nafarroa Beherean, Zuberoako mugan. Astean birritan Miramona joaten da, Mihiluze programa prestatzera egun baten eta grabatzera bestean. Eta beste hainbat egunean Euskal Herrian atzera eta aurrera ibiltzen da, hizkuntza ez formala promozionatzen. Oñatiko Txantxikuko ikasleak ere gustura izan ziren hari entzuten.

gogorra jarri nion neure buruari, zenbat ordu lan egin, adibidez. Baina berehala konturatu nintzen ez zuela funtzionatzen, estresatu egiten nintzen. Orain, mendi bueltak egin ostean hasten naiz lanean.

**10. San Ferminak, Iruñean ala Iratiko txabolaren baten?** Gezurra dirudi, baina adin kontuagatik-edo, Iratiko txabola baten. Hori bai, Iruñera joateko esku-bidearekin.



**Biharamuna**

Marijo Deogracias

## Pluraltasuna

**P**luraltasunaz irakurri nion Iban Arantzabal lanean; *Goienkaria* proiektu plurala, anitza dela, herritik sortutako ekimen zabal eta irekia. Antzekoa esan daiteke Ahotsak ekimenari buruz ere ([www.ahotsak.blogspot.com](http://www.ahotsak.blogspot.com)).

Arlo, ideologia eta sinismen askotariko emakumeek bul-tzatutakoa eta aurrera begira erreferentzia izan beharko litzatekeena. Apirilaren 8an aurkeztu zen Donostian eta han izateko aukera izan nuen. Han ezagutu nuen **Gurutze Irizar Fatimetu**.

Ez da batere pozik egongo *Fatimetu*, **Kofi Annan**ek hartu duen erabakiarekin. 30 urteko egoera jasangaitza konpontzeko ahaleginean amore eman du Nazio Batuen Erakundeak. Sahara galdu dugu. Baina ez zen ba esperantza galdu behar ez zena?

Euskal Herrian horretaz zertxobait badakigu, **Sanz, Raxoi** eta **Jimenez Losanosek** sinistu ez arren. Haserre ei daude popular eta eskuindarrak. Eta guardia zibila ere bai. Antza erakunde armatuaren desmilitarizazioa nahi dute, horixe agindu ei zuen eta **Zapateroren** PSOEek hauteskunde programan.

Desmilitarizatzen hasiz gero, erabateko desmilitarizazioa egin dezatela eskatuko nieke eta jantzi berdeak ere erantzi ditzatela, **Stephen Tunick** argazkilariak beste irudi ederrago bat harrapa dezan.



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

# UGARTE

AROTZEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak



**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

